



## SEGURTASUN SAILBURUA,

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, 2014ko apirilaren 16an egindako osoko bilkuran, ertzean adierazitako kideak bertaratu direla, zure **kontsulta** aztertu du, 34/2014 zenbakiarekin erregistratu baita; hain zuzen ere, **Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea bosgarrenez aldatzeko lege-aurreproiektuaren gainekoa (Erref.: DNCG\_LEY\_7756/2013\_07).**

Eztabaidatu eta gero, irizpen hau eman du, aho batez. Batzordekide Saiz Ruiz de Loizaga andreak adierazi du Batzordearen iritzia.

### LEHENDAKARIA:

Sabino Torre Díez jauna.

### LEHENDAKARIORDEA:

Xabier Unanue Ortega jauna.

### BATZORDEKIDEAK:

Maria Teresa Astigarraga Goenaga andrea  
Luis Maria Eskubi Juaristi jauna.  
Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.  
Fátima Saiz Ruiz de Loizaga andrea  
Gorka Erlantz Zorrozueta Aierbe jauna.  
Imanol Zubizarreta Artecheta jauna.


### IDAZKARIA:

Jesús María Alonso Quilchano jauna.

## IRIZPEN-ZK.: 67/2014

### AURREKARIAK

1. 2014ko martxoaren 4an, Batzordeak Segurtasuneko sailburuaren Agindua jaso zuen. Agindu horren bidez, kontsultarako aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea bosgarrenez aldatzeko lege-aurreproiektua.
2. Espedientean, bidaltze-agindua eta kontsultarako aurkeztu diguten aurreproiektuaren bertsioa (2014ko otsailaren 28koa) jaso dira, eta, horretaz gainera:
  - a) Agindua, 2013ko azaroaren 27koa, Segurtasuneko sailburuarena. Horren bidez, aurreproiektua prestatzeko prozedurari ekitea erabaki zen.



- b) Memoria ekonomikoa, aurreproiektua proposatu duen sailaren Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzarena, 2013ko azaroaren 20koa.
- c) Aurreproiektuaren bertsioa, 2013ko azaroaren 22koa.
- d) Argibide-memoria eta generoaren araberako eraginaren ebaluazio-txostena, biak aipatutako zuzendaritzarenak, 2013ko azaroaren 22koak.
- e) Txosten juridikoa, zuzendaritza horrena, 2013ko azaroaren 25ekoa.
- f) Agindua, azaroaren 27koa, Segurtasuneko sailburuarena, lege-aurreproiektuaren testuari aldez aurreko onarpena ematea eta egin beharreko izapideak egiten jarraitzea xedatu duena.
- g) Ebazpena, 2013ko abenduaren 4koa, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoen, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, aipatutako aurreproiektua jendaurrean jartzekoa (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua: 238. zenbakia, 2013ko abenduaren 16koa).
- h) Txostena, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena, 2014ko urtarrilaren 15ekoa.
- i) Txostena, Emakunderena, 2014ko urtarrilaren 23koa.
- j) Aurreproiektuaren bigarren zirriborroa, 2014ko urtarrilaren 31koa.
- k) Argibide-memoria, aurreproiektua izapidetzeko prozedurari eta alegazioen harira aurreproiektuan egindako aldaketei buruzkoa, organo proposamengilearen zuzendaritzak izenpetua, 2014ko otsailaren 3koa.
- l) Txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena (KEB), 2013ko azaroaren 2koa.
- m) Txostena, otsailaren 25ekoa, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoen, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, legegaiak enpresak sortu, abiarazi eta horien funtzionamenduan zer eragin izango duen ebaluatzen duena.
- n) Beste argibide-memoria bat, aurreproiektua prestatzeko prozedurari buruzkoa, 2014ko otsailaren 28koa.

### **LEGE-AURREPROIEKTUAREN XEDEA ETA DESKRIBAPENA**

3. Irizpenerako aurkeztu diguten lege-aurreproiektuaren xedea da 5/1990 Legearen zenbait xedapen aldatzea (5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko



Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzkoa; aurrerantzean, ELHL) . Aurreproiektuak baditu zioen azalpena, berrogeita hamasei artikulua, bi xedapen gehigarri, aldi baterako bi xedapen, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

4. Zioen azalpena bost ataletan dago egituratuta, eta atal bakoitzak zenbaki erromatar bat du aurretik. I. atalean aipatzen da ELHLeke lehendik zer aldaketa izan dituen eta zergatik. Atal horretan, hauxe esaten da legegaiaren sartutako aldaketei buruz: "Une honetan, 5/1990 Legea aldatu beharra dagoela ikusten da, hainbat arrazoi direla eta: batetik, lege hori indarrean jarri zen urtetik izandako hauteskunde-prozesu autonomikoetan lortutako esperientzia; bestetik, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzkoak, autonomia-erkidegoko legeari eragiten dioten oinarriko kontuetan izandako hainbat aldaketa; Konstituzio Auzitegiaren doktrina ere kontuan hartu beharrekoa da, eta baita hauteskunde-administrazioak egindako gomendioak ere". Hurrengo ataletan, legegaiaren bidez ezarri nahi den araudi berriaren alderdi nagusiak aipatzen dira. II. atala Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren (aurrerantzean, HAOLO) azken aldaketetara eta, zehazki, lege hori aldatzen duen urtarilaren 28ko 2/2011 Lege Organikora egokitzeari buruzkoa da. III. atalean, Konstituzio Auzitegiaren doktrina eta hauteskunde-administrazioaren oharrak legegaiaren sartzea zertan datzan azaltzen da. IV. atalean, hautaezintasunaren arloko berritasunak aipatzen dira, eta, halaber, esaten da hauteskunde-prozesu autonomikoetan berdintasuna lortzeko ekintza positiboak sustatuko direla, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen esparruan. Horretaz gainera, legegai horrek dakartzan beste hobekuntza tekniko batzuk aipatzen dira: pezetatan kuantifikatutako zenbateko guztiak eurotara bihurtzea, bai eta teknologia berriak erabiltzea ere. Amaitzeko, V. atala aurreproiektuaren amaierako zatiaren edukari buruzkoa da (bereziki, xedapen gehigarri, aldi baterako xedapenei, xedapen indargabetzaileari eta azken xedapenetatik lehenengoari buruzkoa).
5. Aurreproiektuaren artikuluei dagokienez, lehenik eta behin, **lehenengo artikulutik zazpigarrenera artekoek** zenbait aldaketa proposatzen dituzte ELHLen 4. artikulurako. Aldaketa horiek hautaezintasun-araubidearen hainbat alderdiri eragiten diote. Alderdi horien artean, aipatzekoak dira:
  - a) Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE), Estatuko eta lurralde historikoetako eta herri-administrazioetako sektore publikoan eginkizun jakin batzuk egiteagatiko hautaezintasun-arrazoiak — artikulua horren 3. idatz-zatian jasoak —. Kasu batzuetan, arrazoi gehiago sartu dira, eta, beste kasu batzuetan, indarreko legean ezarritako arrazoiak beste era batera idatzi dira, hizkuntza ez-sexista erabiliz eta legean jasotako kargu batzuen izendapen berriak kontuan hartuz.



- b) 4. artikuluari 4. paragrafoa gehitu zaio. Paragrafo horrek hauxe zehazten du: 3. paragrafoko a), b) eta e) idatz-zatietan aipatzen diren arrazoiei aplikatu beharreko hautaezintasun-araubidea parte-hartze handiena duen administrazioarena izango da, hain zuzen ere aipatzen den elkartean eta sozietateen kapital sozialean administrazio publiko batek baino gehiagok parte hartzen dutenean. Berdintasun-kasuetan, lurraldeko hautagai-zerrenda nork ordezkatzeko duen, horren arabera erabakiko da zer hautaezintasun-araubide aplikatuko den.
- c) 5. eta 6. paragrafoak gaur egungo 4. eta 5. paragrafoak bezala idatzi dira, baina hizkuntza ez-sexista erabiliz.
- d) Paragrafo bat gehitu da, zazpigarrena, eta, bertan, gaur egungo 6. paragrafoaren edukia jaso. Idazkera aldatu bada ere, edukia ez da aldatu, bertan aipatzen diren bi hautaezintasun-arrazoiei dagokienez —epai bidez kondenatutako pertsonen buruzkoak dira arrazoi horiek—.
6. **Zortzigarren artikulua** ELHLen 20. artikularen 4. paragrafoa aldatu du, eta, horretaz gainera, idazkera egokitu, hizkuntza ez-sexista erabiltze aldera, eta Eusko Jaurlaritzaren informatika-zerbitzuari betebeharrak eman dio; zehazki, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari aholkularitza juridikoa eta teknikoa emateko. Gaur egun, letraduek soilik dute betebeharrak hori.
7. Aurreproiektuak eginkizun batzuk aldatu dizkie Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari (**zortzigarren eta bederatzigarren artikulua**), eta lurralde historikoko eta eskualdeko hauteskunde-batzordeei (**hamaikagarren artikulua**). Horren arabera, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari dagokio hauteskunde-araudia, lurralde historikoko hauteskunde-batzordeei dagokiena eta eskualdeko hauteskunde-batzordeei dagokiena, aplikatzeko orduan interpretazioak egiteko irizpideak bateratzea —ELHLen 29. artikuluko e) idatz-zatia —; era berean, arau-hausterik gertatuz gero, Autonomia Erkidegoko hauteskunde-batzordeek ezar ditzaketen isunen zenbatekoak eguneratu dira (eta eurotan adierazi), aurreproiektuak orobat eragiten dien xedapen jakin batzuek dakartzaten salbuespenak salbuespen —29. artikularen j) idatz-zatia, eta 30. artikularen 1. paragrafoko d) idatz-zatia—.
8. **Hamabigarren artikulua** hirugarren paragrafoa gehitu dio ELHLen 36. artikuluari. Paragrafo horretan ezartzen denez, webgune bat prestatuko da, eta webgune horretan sartuko dira Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen erabakiak (euskaraz eta gaztelaniaz idatziak). **Hamahirugarren artikulua** 36 bis artikulua gehitu dio ELHLi. Horren arabera, bermatu egiten da euskal hauteskunde-administrazioarekiko idatzizko harremanetan gaztelania eta euskara



erabiltzeko eskubidea, bai eta hizkuntza horretan laguntza jasotzeko eskubidea ere.

9. **Hamalaugarren artikulua** aldatu egin du 38. artikulua 3. paragrafoa. Hauteskunde-sail, -mahai eta -lokalen behin betiko zerrenda Hauteskunde Erroldaren Bulegoaren webgunean argitaratuko da, euskaraz eta gaztelaniaz, eta ez da beharrezkoa izango egunkarietan argitaratzea (horixe ezartzen du indarreko testuak).
10. **Hamabosgarren artikulua** aldatu egin du 42. artikulua 3. paragrafoa, hauteskunde-mahaietan titular edo ordezeko gisa parterik ez hartzeko arrazoiei dagokienez, eta parterik ez hartzeko beste arrazoi batzuk jaso dira.
11. **Hamaseigarren artikulua** aldatu egin du 43. artikulua 2. paragrafoa, mahai bakoitzaren lehendakaria eta kideak izendatzeko moduari eta pertsona horiek bete beharreko betebeharrei dagokienez.
12. **Hamazazpigarren artikulua** aldatu egin du ELHLen 44.1 artikulua. Aldaketa horren arabera, eskualdeko hauteskunde-batzordeek azaldu egin behar dute, labur bada ere, zergatik ez dituzten onartu mahaietan parterik ez hartzeko alegatutako aitzakiak. Halaber, artikulua horren arabera, mahaikideei emango zaien argibide-liburuxka euskaraz eta gaztelaniaz izango da.
13. **Hemezortzigarren artikulua** aldatu egin du 46.3 artikulua 1. paragrafoa, honela aldatu ere: hauteskundeetarako deia egiteko lehendakariaren dekretuak zehaztuko du bozketa noiz izango den; hain zuzen ere, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, berrogeita hamalaugarren egunean izan beharko da. **Hemeretzigarren artikulua** 4. paragrafoa gehitu dio 46. artikuluari. Horren bidez, ordea, ez da eduki berririk sartu; aitzitik, artikulua horren 3. paragrafoa azken paragrafoari zenbaki bat eman zaio.
14. **Hogeigarren eta hogeita batgarren artikuluek** ELHLen 50. artikuluari eragiten diote. Hogeigarren artikuluan, 2. paragrafoa b) idatz-zatia aldatzen da, hizkuntza ez-sexista erabiliz, eta, horretaz gainera, hautagai-zerrendak aurkezteko dokumentuan, hautagaien eta ordezekoen izen-abizenak ez ezik, haien ezizenak ere sartuko direla ezartzen da, baldin eta ezizenik badute. Hogeita batgarren artikuluan, 5. paragrafoa gehitu zaio artikulua horri, sei izeneko tarteei % 50eko emakume-kuota aplikatzeari buruzkoa (zerrendako ordezkari-hautagaiak kontuan hartuko dira kuota hori aplikatzen denean).
15. **Hogeita bigarren artikulua** aldatu egin du hautagai-zerrenda osoa hauteskundeetatik kentzeagatik lurralde historikoetako hauteskunde-batzordeek




ezar ditzaketen zehapenen gehienezko zenbatekoa — eurotan adierazia — (ELHLen 66. artikuluan ezarria).

16. **Hogeita hirugarren artikulua** ezartzen du zer ezaugarri izan behar dituzten Eusko Jaurlaritzak egiten dituen kanpaina instituzionalek, xedetzat dutenak herritarrei informazioa ematea bozketaren inguruabarrei buruz. Orobat ezartzen du bi hizkuntza ofizialak erabili beharko direla (ELHLen 68.3 artikulua).
17. **Hogeita laugarren artikulua** 68 bis artikulua gehitu dio ELHLi. Artikulu horren arabera, hauteskunderen deialdia egiten denetik hauteskundeak benetan izan arteko denbora-tartean ezin izango dira artikuluan aurreikusitako jarduketak egin, eta, eginez gero, zehapenak ezarriko dira. Aginte publikoei eta Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Institutuzionalari buruzko abenduaren 23ko 6/2010 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren erakundeei aplikatuko zaizkie debekuzehapen horiek.
18. **Hogeita bosgarren artikulua** 71. artikulua aldatu du —orain, bost paragrafo izango ditu—. Zehazki, mugatu egin da hauteskunde-kanpainatik kanpo botoak bereganatzeko publizitate-ekintzak egiteko debekuan sartzen diren ekintzak, bai eta ustez debeku horretan sartzen ez diren ekintzak ere, hauteskunderen deialdia egiten denetik hauteskundeak benetan izan arteko denbora-tarterako berariazko salbuespenak salbuespen.
19. **Hogeita seigarren artikulua** bitartez, ezabatu egin da 72. artikulua 3. paragrafoa (ELHLen 81.1. artikuluaekin bat eginda geratu delako aurreproiektuan).
20. **Hogeita zazpigarren artikulua** 100eko 25etik 100eko 20ra jaitsi du hautagai-zerrendek publizitate grafikoan egin dezaketen gastuaren muga, ELHLen 75.2 artikuluan aurreikusita dagoena.
21. **Hogeita zortzigarren artikulua** legearen 79. artikulua aldatu du, eta 6.000 eurora igo du udalak jarri ahal izango dituen zehapenen muga, baimenik gabeko tokietan propaganda grafikoak jarri edo idazketak eginez gero.
22. **Hogeita bederatzigarren artikulua** aldatu egin du ELHLen 80.1 artikulua, eta hau zehaztu: baimenik gabeko tokietan jarritako propaganda grafikoa soilik kendu beharko dela.
23. **Hogeita hamargarren artikulua** idazpurua aldatu dio legearen V. tituluaren II. kapituluaren laugarren atalari (“Hauteskunde-kanpainan komunikabideak erabiltzea”).




24. **Hogeita hamaikagarren artikulua** legearen 81.1 artikulua aldatu du, eta telebista pribatuetara hedatu du publizitate-saioak kontratatzeko debekua (egungo testuaren 72.3 artikuluan dago aurreikusita debeku hori).
25. **Hogeita hamabigarren artikulua** ezarri du ELHLen 85. artikuluko testua 1. paragrafoa izango dela. **Hogeita hamahirugarren artikulua** 2. paragrafoa gehitu dio legearen 85. artikuluari: hauteskunde-aldian, emisore pribatuek aniztasun eta berdintasun printzipioak errespetatu beharko dituzte eta proportzionaltasun- eta neutraltasun-printzipioak ere bai, HAOLoren 66.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.
26. **Hogeita hamaseigarren artikulua** aldatu egin du ELHLen 87. artikulua 7. paragrafoa: aurreikusitako epeetan, debekatuta egongo da edozein komunikabidek, digitalek barne, hauteskunderi buruzko zundaketarik argitaratzea, horiek ezagutaraztea eta erreproduzitzea. Debeku hori bozketa-egunaren behin-behineko emaitzetara zabaldu ahalko da. Debekua betetzen ez bada, isunak jarriko dira.
27. **Hogeita hamabosgarren artikulua** hauxe gehitu dio legearen 88.1 artikuluari: botoen txartelen, gutun-azalen eta abarren ereduak eta ezaugarriak ezartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren dekretuan, formatu elektronikoa ezarri ahalko da, hauteskundeetan parte hartzen duten hautagaien txartelenak, bai eta hauteskunde-inprimaki jakin batzuenak ere. Herritarrek beti izan beharko dute aukera txartel eta inprimaki horiek Eusko Jaurlaritzaren webgunetik telematikoki eskuratzeko.
28. **Hogeita hamaseigarren artikulua** ELHLen 92. artikulua 2. paragrafoa aldatu du, eta laura murriztu du ikuskatzaile bakoitzak izango dituen orri talonarioen kopurua (bost izan beharrean); bosgarren orria ezabatu egin du (gaur egungo idazkeraren arabera, eskualdeko hauteskunde-batzordearen esku gelditu behar du orri horrek).
29. **Hogeita hamazazpigarren artikulua** aldatu egin du ELHLen 103. artikuluan ezarritako esaldiaren ordena, bozketa euskaraz has dadin.
30. **Hogeita hemezortzigarren artikulua**, beste era batera idatzi da ELHLen 104.3 artikulua, eta ezarri da Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez arautuko duela prozedura bat, hautesle itsuek edo ikusmen-ezintasuna dutenek isileko botoa eman ahal izatea bermatzeko.
31. **Hogeita hemeretzigarren artikulua**, beste era batera idatzi da ELHLen 107.1 artikulua, eta ezarri da hautesleak berak sartuko duela botoaren gutun-azala hautestontzian, mahaiko lehendakariak hauteslearen izen-abizenak ozenki esan eta gutun-azala itzultzen dionean.




32. **Berrogeigarren artikulua** ELHLen 109. artikulua aldatu du, eta hauxe ezarri du: eskualdeko lokaletan sartzeko baimena duten pertsonak —euskal Administrazioak izendatuko ditu pertsona horiek—, hauteskunde-informazioa biltzeaz gain, beste eginkizun batzuk egin ahalko dituzte.
33. **Berrogeita batgarren artikulua** ELHLen 112. artikulua 1. paragrafoa egokitu du, hizkuntza ez-sexista erabiliz, eta, horretaz gainera, aldatu egin du bozketa amaitzean euskaraz esan beharreko esaldia. **Berrogeita bigarren artikulua** 112. artikulua 3. paragrafoa ezabatu du. Paragrafo horretan esaten da mahaiko lehendakaria izango dela botoa ematen azkena eta mahaikideetako batek sartuko duela haren botoa hautestontzian.
34. **Berrogeita hirugarren artikulua** aldatu egin du 115. artikulua: b) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren boto baliogabeen arrazoiak aldatu ditu, eta botoak baliogabetzeko beste arrazoi bat jaso du d) idatz-zatia —gaur egungo d) idatz-zatia e) idatz-zatia bilakatuko da—; zehazki, mahaiari ez dagokion hautesbarrutiko boto-txartelak baliogabetuko direla ezarri du.
35. **Berrogeita laugarren artikulua** 124 bis artikulua gehitu dio ELHLi. Atzerrian dauden egoiliarren botoa zenbatzeko moduari buruzkoa da artikulua hori.
36. **Berrogeita bosgarren artikulua** aldatu egin du 129. artikulua 9. paragrafoa: hauteskunde-batzordeak, euskal Administrazioak izendatutako pertsonari aktaren kopia bidaltzeko egin beharrekoak egiteaz gain, jendaurrean ezagutarazi beharko du akta hori.
37. Aurreproiektuaren **berrogeita seigarren artikulua** aldatu egin ditu ELHLen 132. artikuluan ezarritako isunak —eurotan adieraziak—. Isun horiek ezarriko dira baldin eta hauteskunde- eta debeku-arauak hausten badira eta arau-hauste horiek delitu ez badira.
38. **Berrogeita zazpigarren artikulua** aldatu egin ditu legearen V. tituluko XI. kapituluaren numerazioa eta idazpurua. Orain X. kapitulua izango da, eta idazpuru hau izango du: “Posta bidezko botoa”. Indarrean dagoen X. kapitulua, bozketa elektronikoaren prozedura arautzen duena, kendu delako egin da hori.
39. **Berrogeita zortzigarren artikulua** aldatu egin ditu 132. artikulua 132. artikulua numerazioa eta idazkera (posta arrunt bidez botatzeari buruzkoa da artikulua hori). Orain, 132 bis izango da. Horretaz gainera, hauteskunde-deialdia egiten denetik hauteskundeak egiten diren arte aldi batez atzerrian daudenei aukera ematen die postaz bozkatzeko. **Berrogeita bederatzigarren artikulua** 132 ter artikulua gehitu du. Artikulu horrek arautzen du atzerrian bizi arren hauteskunde-erroldan egoiliar gisa izena emanda dauden boto-emaleen botoa, eta HAOLoren 75. artikulua igortzen du.





40. **Berrogeita hamargarren artikulua** aldatu egin du VI. tituluaren II. kapituluko 134. artikulua, hauteskunderi lotutako erreklamazioak egiteko administrazio-prozesuari buruzkoa, hauteskunde-batzordeen erabakien aurka goragoko mailako batzordearen aurrean errekurtoa aurkezteari dagokionez. Hauteskunde-garaian, 5 eguneko epean ebatzi beharko da errekurtoa, eta, hauteskunde-garaitik kanpo, 10 eguneko epean. Ezingo da administrazio-errekurtsorik jarri ematen den ebazpenaren aurka (gaur egungo araudiaren arabera, errekurso judizialik ere ezin da jarri; aipamen hori, baina, ezabatu egin da).
41. **Berrogeita hamaikagarren artikulua** 9. paragrafoa erantsi dio ELHLen 114. artikuluari. Paragrafo horrek hauteskunde-eskuraketak eta diru-iturburuak arautu ditu; zehazki, baldintza eta betekizun zehatzak ezarri ditu, alderdi politiko, federazio, koalizio eta hauteskunde-taldeek hauteskundeetako diru-laguntzei dagokien bigarren aurrerakina jaso ahal izateko. Arlo horretan, **berrogeita hamabigarren artikulua** aldatu egin du legearen 145.4 artikulua ezarritako muga: debekatuta egongo da edozein erakundek, pertsona fisikok edo juridikok 10.000 euro baino gehiagoko ekarpena egitea, alderdi, federazio, koalizio edo talde berak deialdiko hauteskundeetarako dirua biltzeko irekitako kontuetan.
42. **Berrogeita hamahirugarren artikulua** aldatu egin du 146. artikulua h) idatzatua, boto-asmoari buruzko hauteskunde-inkesten eta -zundaketen gastua ere hauteskunde-gastutzat hartu baitu.
43. **Berrogeita hamalagarren artikulua** aldatu egin du 147. artikulua 2. paragrafoa, hauteskunde-gastuen mugari dagokionez (eurotan adierazia).
44. **Berrogeita hamabosgarren artikulua** aldatu egin du 151. artikulua, hauteskunde-gastuetarako diru-laguntzen zenbatekoei dagokienez (eurotan adieraziak). Horretaz gainera, hauxe gehitu da: indar politikoek diru-laguntza horiek jasotzeko eta kobratzeko, justifikatu egin beharko dute, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak hala erabakitzen badu, legebiltzarkide-kargua benetan hartu dutela eta kargu horretan dihardutela.
45. **Berrogeita hamaseigarren artikulua** aldatu egin du ELHLen laugarren xedapen gehigarria, eta, "pezeta-kopuruak" jartzen duen lekuan, "euro-kopuruak" jarri.
46. Aurreproiektuaren amaieran, **lehenengo xedapen gehigarrian** adierazten denez, hautagaiei boto eta aukien arabera ematen zaizkien diru-laguntzak eta hauteskunde-publizitate eta -propaganda bidaltzearekin lotutakoak 2013ko urriaren 1ean eguneratu dira, legegaiaren bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren ondorioetarako. **Bigarren xedapen gehigarrian**, Gobernuari gaitasuna ematen zaio, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak txostena egin ostean, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan beharrezkotzat jotzen diren proba pilotuak egiteko, autonomia-erkidegoko prozesuari hobekien egokitzen



zaizkion teknologia berriak erabilia, teknologia horiek ezar daitezkeen ala ez aztertzeko xedez. Nolanahi ere, botoaren isilpekotasuna eta zenbaketaren gardentasuna bermatu beharko dira.

47. **Lehenengo xedapen iragankorrak** ezarri du % 15 murriztuko dela 147.2 artikuluan aurreikusten den hautagaien hauteskunde-gastuaren muga 2012. urtearen ondoren egiten diren Eusko Legebiltzarrerako lehenengo hauteskundeetan. **Bigarren xedapen iragankorren** arabera, berriz, hauteskundeetarako diru-laguntza publikoen zenbatekoak, legearen 151.1 eta 2 artikuluetan aurreikusitakoak, izoztuzat joko dira 2013ko abenduaren 31n, Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeak egingo diren urteko ekitaldirako.
48. **Xedapen indargabetzaile bakarrak** X. kapituluari eragiten dio (“Bozketa elektronikoari dagokion jardunbidea”), bai eta 132 bis eta 132 septies artikuluei, ELHL aldatzeko ekainaren 19ko 15/1998 Legearen azken xedapenetatik lehenengoari eta bozketa elektronikoaren arloko definizioen eranskinari ere.
49. **Azken xedapenetatik lehenengoak** hauxe ezarri du: Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez ezarriko ditu irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak hauteskundeak garatu bitartean, Ezintasuna duten pertsonen aukeraberdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun orokorrari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legean aurreikusitakoaren arabera. **Azken xedapenetatik bigarrenaren** arabera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean araua.

## **BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA**

50. Irizpen hau ematea nahitaezkoa da, “lege-aurreproiektuak” direnerako halaxe ezarri baitu —horien edukia eta helburua direnak direla ere— Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruz azaroaren 24an emandako 9/2004 Legeak 3.1 a) artikuluan. Era berean, ez gaude xedapen berak nahitaezko tasun horri buruz adierazitako salbuespenetako baten aurrean.
51. Lehenago, Batzordeak ELHL bosgarrenez aldatzeko beste lege-aurreproiektu bat aztertu zuen, eta irizpena eman zuen (EABJ - Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 13/2003 Irizpena). Lege-aurreproiektu hori, baina, bertan behera gelditu zen legebiltzarrean; izan ere, ganbera legegilea desegin egin zen.
52. Kontsulta honen aztergai den aurreproiektuaren testua beste ekimen bat da. Ekimen horrek bere egite-prozedura izan du, eta, edukietan, aldaketa nabarmenak ditu, aurreko aurreproiektuaren aldean, eta aldaketa horiek berariaz aztertu behar dira (aipatutako 9/2004 Legearen 29. artikulua).



## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

### I LEGE-AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA

53. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 8/2003 Legeak, abenduaren 22koak (aurrerantzean, XOEPL), bere ezarpen-eremuaren barruan sartu ditu lege-forma duten xedapen orokorrak (3.1 artikulua).
54. Aurrekoa gorabehera, Batzorde honek behin eta berriz aipatu izan du zer alde edo diferentzia dauden lege-aurreproiektuak egiteko prozedurari egin behar zaion ebaluazioan, izapidetzeari buru emango dion produktuaren izaera berezia dela eta.
55. Lege-aurreproiektuei dagokienez, XOEPLek xedetzat du Gobernuaren jarduera bideratzea legegintza-prozedura zentzu hertsian hasi aurreko fasean, xedapen orokorrak idazteko metodologia berarekin idatz daitezkeen lege-aurreproiektuak. Hori horrela da; izan ere, XOEPLen zioen azalpenean esaten denez: “Horrela, legegintzako ahala duenaren eginkizuna erraztu egingo da, hobeto funtsatutako egitasmoak aurkeztuko baitzaizkio eztabaidarako eta erabakia hartzeko, helburuak iristeko egokiagoa eta finagoa den teknika juridikoaz artikuluka banatuak”.
56. Legebiltzarrean hedatzen da bere zabalean legegintza-prozedura, eta Konstituzioak (EK), Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak (EAEE) edo, batzuetan, lege organikoek lege-proiektua onartzeko baldintzak ezartzen dituzten berariazko kasuetan izan ezik, lege-proiektuek bete behar duten baldintza bakarra da beharrezko aurrekariekin batera bidaltzea Legebiltzarrera, Legebiltzarrak bere iritzia eman eta erabakia hartu ahal izan dezan; gutxienez ere, memoria orokorra, finantzetari buruzko eranskina eta kontrol ekonomikoko txostena (aurrekontuari karga edo zama dakarkioten proiektuetan), generoaren arabera eraginaren eta dagokion neurri zuzentzaileen ebaluazioa, kontsulta-organo honen irizpena eta legeriaren arabera nahitaezko diren beste txostenak (Jaurlaritzaren Legearen 57. artikulua, eta Eusko Legebiltzarreko Araudiaren 133. artikulua).
57. Une honetan, proiektaturiko arau-testu zehatza atera arte erabilitako prozedura aztertzeak bide eman behar du arauaren oinarri objektiboa ikusteko. Orobat eman behar du bide jakiteko, batetik, ea eman nahi den erregulazioa zentzuzkoa — hausnartu ondorengo erabaki baten fruitua — eta arrazoizkoa — gure ordenamendua eratzen duten jarraibide axiologikoekin bat datorrena— den, eta, bestetik, ea aukera ematen duen arauak eragingo dien sektoreen eta indarreko arauen arabera proiektaturiko testuari buruz iritzia eman behar duten organoen iritzia zein den jakiteko, eta, azkenik, ea etorkizuneko arauak izango duen eragin ekonomikoaren ebaluazioa ere badakarren.



58. XOEPLek ezarritako jarraibideen arabera, prozedurari egingo diogun azterketan —finalista baita, funtsean— hauek bereiziko ditugu: (i) hasierako fasea, ekimena proposatu duen organoaren barrukoa, helburu nagusitzat duena hasierako testua eta horri eusten dioten arrazoiak finkatzea; (ii) prozedura irekitzeko fasea, arauak eragin diezaiekeen sektore eta administrazioak aintzat hartuta; (iii) txostenak —nahitaezkoak eta aukerakoak— egiteko fasea; eta (iv) amaierako fasea: ekimena bultzatu duen organoak, prozedura-iter guztia ebaluatuta, behin betiko testua finkatu, eta azken dokumentuak —justifikazio-memoria eta memoria ekonomikoa — prestatuko ditu.
59. Bidali diguten espedientearen hasierako fasean ageri da agindu bat, Segurtasuneko sailburuarena, prozedura hasten eta informazioa eskaintzen duena, zenbait gairi buruz: legegaiaren aurrekariak, xede orokorrak, funtsezko edukiak, eta egin beharreko izapideen zerrenda. Segurtasuneko sailburuaren 2013ko azaroaren 27ko Aginduaren bitartez, aurreproiektuaren lehen bertsioa onartu zen, eta izapidetzeari jarraipena ematea manatu.
60. Proposamena egin duen sailaren Araubide Juridikoen, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzaren memoria ere erantsi dute. Memoria horrek aurreproiektuari buruzko azalpenak ditu. EAeko eta Estatuko arauteriaren berri zehatza eman dute, baita Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentiarena ere, hauteskunde-administrazioaren (Hauteskunde Batzorde Nagusiaren eta Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen) doktrina ahaztu gabe, aintzat hartu baitituzte proiektaturiko aldagetari ekiteko; zehatz-mehatz aztertu dute habilitazioa edo gaikuntza ematen duen eskumen-titulua, Konstituzioaren eta Estatutuaren esparruarena; azkenik, legegaiaren edukiaren laburpena sartu dute.
61. Araubide Juridikoen, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak egindako memoria ekonomikoa jakinarazten da zer eragin izango duen aurkeztutako aldagetak ekonomian. Memoria horrek sei atal ditu: 1) aurrekariak eta zergatik den premiazkoa aurreproiektua ekonomiaren ikuspegitik; 2) zer gastu eta diru-sarrera ekarriko dituen aurrekontuetan aurreproiektua indarrean jartzeak —bi azpiatal ditu: lehenengoan, eduki ekonomikoa duten xedapenak aztertzen dira; bigarrenean, ekimenak ekonomian zer eragin izango duen aztertzen da—; 3) nola finantzatuko diren aurrekontu-gastuak eta aurrekontuz kanpokoak; 4) zer eragin izango duen arauak EAeko Ogasun Nagusiari dagozkion gaietan; 5) nolakoa den arau hori txertatuko den aurrekontu-programa ekonomikoa; eta 6) zer eragin izango duen gizartean. Horretaz gainera, memoriak bi eranskin ditu: lehenengoan, taula bat dago, 2012ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako eta hurrengo urteetako hauteskundeetako gehienezko hauteskunde-gastua alderatzen duena; bigarrenean, beste taula bat dago, bi aldi horietako hauteskundeetarako diru-laguntza publikoak alderatzen dituena.



62. Espedientean, jasota dago aipatutako zuzendaritzaren txosten juridikoa, XOEPLen 7.3 artikulua eskatutakoarekin bat datorrena. Txosten horretan, zehatz-mehatz azaltzen da hau guztia: aurrekariak; aurreproiektuari buruzko gogoetak, legegaia emateko eskumenari eta artikulua bakoitzaren azterketari dagozkienak; legegintza-teknika; eta prozeduraren izapidetzea. Aurreproiektua zuzenbidearen arabera dela ondorioztatu dute.
63. Zuzendaritza horrek orobat egin du txosten bat, jakiteko legegaiak zer eragin izango duen enpresak sortu, abiarazi eta enpresa horien funtzionamenduan (ekainaren 28ko 16/2012 Legeak, Eusko Jurlaritzak Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzekoak, 6. artikuluan ezarritakoa betetzeko). Txosten horren arabera, legegaiak ez du eraginik izango —ez zuzenean, ez zeharka— arlo horietan.
64. XOEPLen 8. artikulua entzunaldiaren izapideari buruz xedatu duenari dagokionez, aurreproiektua jendaurrean jartzea hobetsi dute aztergai dugun prozeduran, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dute, 2013ko abenduaren 16ko 238. zenbakian argitaratu ere, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoen, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariaren Ebazpena, 2013ko abenduaren 4koa, aipatutako aurreproiektua jendaurrean jartzekoa. Legegaiaren erregulazioak herritarren oinarrizko eskubide bati eragiten dio; Espainiako Konstituzioaren (EK) 23. artikuluko sufragio-eskubideari, alegia. Hortaz, logikoa dirudi ekimena aipatutako moduan jendaurrean jartzea, kontsultarako.
65. Espedientean esaten denez, herritar batek, US jaunak, alegazioak egin ditu jendaurrean jartzeko izapidean; zehazki, idazki bat aurkeztu du Eusko Jurlaritzaren egoitza elektronikoan. Argibide-memorian, alegazio horiek laburbildu eta erantzun dira (132. or.).
66. EABJ 224/2011 irizpenean ere esan genuenez, gomendagarria zatekeen kontsulta egitea eta parte hartzeko aukera ematea inplikaturako beste administrazio batzuei; hala nola foru-administrazioei eta udal administrazioei, ekimenak zuzenean eragiten baitie.
67. Generoaren arabera eraginaren txostena prestatu dute. Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, exijitzen du hori 19.1 artikuluan.
68. Erakunde hauetako bakoitzak txosten bat egin du, bere araubidearen arabera nahitaetzeko dena: Eusko Jurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak, KEBek eta Emakundek.



69. Halaber, ikusi dugu ekimena sustatu duen erakundeak bi memoria egin dituela bi une jakinetan. Memoria horietan, prozeduran egin diren txostenetako alegazioei erantzun diete, eta alegazio horiek kasuan-kasuan zergatik onartu edo baztertu dituzten azaldu dute, bai eta legegaiari zer leku duten adierazi ere. Memoria horiek, halaber, prozeduraren izapidetzearen oinarrizko alderdiak laburbiltzen dituzte, eta XOEPLen 10.2 artikuluan ezarritakoa betetzen dute.
70. Amaitzeko, egiaztatu dugu aurreproiektuak behar bezala betetzen duela Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu bidez hartzen diren xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dituen; izan ere, XOEPLen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera aurrez onartutako testuak bazuen euskarazko bertsioa, eta, halaber, negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egiteko erabili den testu osoa bi hizkuntzatan zegoen, eta irizpide hau emateko bidali den testua ere bi hizkuntzatan dago.
71. Horri esker, kontsultatutako organoek eta parte hartu duten herritarrek aukera izan dute testu osoa bi hizkuntzatan aztertzeko, eta, horren ondorioz, jendaurrean jartzeko izapidean, alegazioak jaso dira bi bertsioen arteko akatsei eta kontraesanei buruz; esaterako, ELHLen 80.1 artikuluari lotutako 29. artikuluari (lehen 28. artikulua zenari) dagokionez. Alegazio horiek aintzat hartu dira, eta espedientean jaso. Halaber, arestian aipatutako Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostenak, 2014ko urtarrilaren 15ekoak, hizkuntza politikako araua ikuspuntu juridikotik behar bezala aplikatu dela egiaztatzeaz gain, testua aztertu du, eta aditzera eman du aurreproiektuaren 12. artikuluen euskarazko eta gaztelaniazko bertsioa ez datozela bat, eta iradoki du "boto-emanketa" esatea baino egokiagoa dela "bozketa" esatea (kontu hori terminologiari dago lotuta, eta terminologia gero izango dugu aztergai, legegintza-teknikari buruzko atalean). Kontu horiek beren osotasunean aintzatetsi dira.
72. Euskarazko eta gaztelaniazko testua errazago kontrastatzeko eta aipatutako 2013ko maiatzaren 14ko Erabakia baliagarriagoa izan dadin, are baliagarriagoa izango litzateke hemendik aurrera testu elebiduna dokumentu bakar batean jasotzea, bi zutabeko formatuan; hartara, errazagoa izango da testuak irakurtzea eta alderatzea.


## **II ESKUMEN-TITULUA ETA ARAU-ESPARRUA**

73. Autonomia Erkidegoak badu eskumenik aski legegaiari ekiteko.
74. Arau aldatzaileei buruz eman ditugun irizpenetan behin eta berriz aditzera eman dugunez, aurreproiektuak zer lege aldatzen duen, lege horren eskumen-euskarria



izango du, jakina. Hortaz, aski izan bedi gogoratzea Autonomia Estatutuaren (EAEE) 10.3 artikulua eskumen eskusiboa esleitu diola Euskal Autonomia Erkidegoari arlo honetan: “Eusko Legebiltzarrari (...) eragiten dien barruko hauteskunde-legeria...”. Eskumen hori egikarituta, EAEEren 26.5 artikulua betez eman zuten 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzkoa (ELHL laburdura jarri diogu). Beste lege batzuek, dena den, 5/1990 legea aldatu dute: 15/1998 Legeak, ekainaren 19koak; 6/2000 Legeak, urriaren 4koak; 1/2003 Legeak, martxoaren 28koak; eta 4/2005 Legeak, otsailaren 28koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak. Orain proposatu duten aldaketa, beraz, ELHLen bosgarrena izango da.


75. Aurrekoa horrela, interesgarria da gogoratzea Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) “hauteskunde-alorrean” —eremu hori zuzen lotzen baitzaio Konstituzioak (EK) 23. artikuluan aitortutako partaidetza demokratikorako oinarrizko eskubideari— duen eskumena zehatz-mehatz aztertu zuela Batzorde honek EABJ 2/2002 irizpenean; horrenbestez, horretara jotzen dugu (azterketa hori, egin-eginean ere, beste irizpen batzuetan ere agertu da, aipatutako legea garatzeko edo aldatzeko xedapenetan: berriena den EBAJ 224/2011 irizpenaz gain, EABJ 249/2008 eta EABJ 23/2005 irizpenak dira aipagarrienak).
76. Bada, EABJ 2/2002 irizpen hartan adierazi genuenez, eskumen autonomiko hori eskusibotzat hartu izanagatik ere, Konstituzioak baditu artikulua batzuk, eskumen horren egikaritzari argi eta garbi eragiten diotenak modulazioaren aldetik; hortaz, bereziki aztertu genuen EKen 149.1.1 artikulua, EKen 23. artikuluekin lotuta, Estatuari gorde dion eskumen-erreserba, eta aplikatzeko diren Estatuaren beste eskumen-titulu batzuk aipatu (adibidez, 149.1.18 artikulua, herri-administrazioen araubide juridikoaren oinarriak, eta 149.1.6 artikulua, legeria prozesala eta penala).
77. EKen 149.1.1 artikulua aipatzen dituen “oinarrizko baldintza” horiei dagokienez, hauxe zehaztu genuen: ez direla EKen 53.1 artikulua aipatzen duen eskubideen funtsezko edukiaren sinonimo, beste plano batean-edo funtzionatzen baitu eduki horrek: “herritarrak botere publiko ororen aitzinean duen berme gisa, berdin mugatzen edo estutzen duena hala Estatuko legegilea nola autonomikoa”.
78. Konstituzio Auzitegiaren doktrina ere ekarri genuen gogora irizpen hartan, EKen 149.1.1 artikulua zer den definitzen duen neurrian: titulu autonomo bat, Estatuari berdintasuna bermatzeko oinarrizko baldintzak arautzeko gaikuntza ematen diona, nahiz eta baldintzen oinarrizkotasunak araubide juridikoaren diseinu amaitu, ondu eta osatua galarazi. Oinarrizko baldintza horiek “eskubidearen oinarrizko edukia, funtsezko jarrera juridikoak” dituzte xede. Ez gara, beraz, edozein baldintza “materialez” ari, baizik eta berdintasun hori bermatzeko nahitaezko eta beharrezko diren baldintzez, eta ezin da izan “erabateko berdintasun formala” ;hala ere, oinarrizko baldintzekin beharrezko eta berehalako lotura duten irizpideak ere oinarrizko




baldintza horien barruan daudela uler daiteke; hala nola eskubidea osatzen duten ahalmenen xedea edo esparru materiala; eskubide bat gauzatzeko eginbeharrak, betekizunak eta oinarrizko baldintzak; eskubidea gauzatu ahal izateko ezinbestekoak diren betekizunak edo antolaketa-esparrua.

79. Aipatutako konstituzio-xedapenen eta -doktrinaren azterketatik atera genuenez, "Estatuko legegileak zilegi du oinarrizko baldintzatzat jotzea sufragiorako oinarrizko eskubidearen erregulazioaren elementu eta alderdiak, baldin eta nahitaezko edo beharrezko badira herritar guztiei oinarrizko posizio juridiko berdina bermatzeko eskubide hori egikaritzeari dagokionez; dena den, nahitaezko edo beharrezko diren neurrian bakarrik jo ahal izango ditu oinarrizkotzat, eta, horretarako, zuzeneko zerikusia izan beharko dute eskubide horren egikaritzarekin, eta, zer bermeren mesederako diren, bada horri egokitu beharko zaizkio, eta arrazoizkoak eta heinekoak izan beharko dute".
80. Irizpen hartan gaineratu genuenez, Eusko Legebiltzarrerako hauteskudeen erregulazioan, legegile autonomikoa sufragiorako oinarrizko eskubidearen legegile ere bada, eta, beraz, eskubide hori zuzen egikaritzeko bidea ezartzeko ahalmenaz gain, horretarako betebeharra ere bazuen, Konstituzio Auzitegiaren 225/1998 epaiak ezarritako araugintza-askatasunarekin, eskubidearen funtsezko edukiaren muga (EKen 53.1 artikulua) gainditu gabe.
81. Hortaz, legegile autonomikoak, Konstituzio Auzitegiak deklaratu duenaren ildotik, lege organikoaren edukia errespetatuz gero, jokatzeko edo taxutzeko tarte zabala du bere hauteskunde-araubidea diseinatzeko, eta, erregulazio horretan, zilegi du sufragiorako oinarrizko eskubideari "eragitea"; izan ere, Konstituzio Auzitegiak ildo beretik adierazi duenez, zuzena eta zehatza behar du EKen 81. artikulua aipatutako garapena, eta hori ezin da "eragite hutsarekin" parekatu (Konstituzio Auzitegiaren 129/1999 epaia). "Hauteskunde-araubide espezifiko" sortzeko muga, horrenbestez, honen inguruan agertzen da: berdin mantendu behar denari eustean; izan ere, ez da desberdintasuna saihestu behar, bidegabea dena baizik, hots, funtsezko desberdintasun bat, aztertzen ari garen eskubide horretan eduki desberdina eragingo lukeena hauteskunde-prozesu baten edo beste baten arabera; egin-eginean ere, gure ordenamendu juridikoak ezarri baitu hauteskunde-prozesuak egin behar direla Estatuko erakundeetako ordezkariak aukeratzeko.
82. Eskumen autonomikoaren eremua hala planteatuta, Batzorde honen ustea da bere irizpenaren azterketa-eremua mugatu behar duela, besteak beste, hauxe ikustera: ea proposatzen den erregulazioak ondo errespetatzen dituen sufragiorako eskubide oinarrizkoa arautzeko modua eta mugak, alde batera utzi edo indargabetu gabe edozein hauteskunde-prozesutan bere horretan iraun behar duen muineko antolamendu-esparruaren funtsezko elementurik.






83. Azterketa horretan, beharrezkoa da HAOLok ematen duen arau-esparrua aipatzea, konstituzionaltasun-parametroaren elementuetako bat baita Konstituzio Auzitegiaren arabera (Konstituzio Auzitegiaren 154/88 epaia); baina, adierazpen hori ñabartuz, honako hau nabarmendu du auzitegi berak: “Konstituzioaren 149.1.1 artikulua Estatuari ematen dion eskumen horren erabilera berariazkoak Auzitegi hau behartzen du, Estatuko arauak beren buruz egiten duten definizioa ñabardurarik gabe onartzera mugatu ezin duenez, Estatuko legegileari balioztatze-tarte bat ematera, lurralde nazionalen antolamendu uniformeak izan behar duten hasierako baldintzak finkatu behar baititu, oinarritzkoak diren heinean”.
84. Hala ere, interpretaziorako tarte hori onartuta, gogoratzekoa da, autonomia-erkidegoko lege bat Konstituzioaren aurkakoa dela esateko —horren arrazoia bada eskumenen antolamendu konstituzionala urratu duela (Estatuko legea ez badu bete, Estatuak bere eskumenak erabili ondoren)—, beharrezkoa litzatekeela Estatuko lege horrek Konstituzioak araututako antolamendua errespetatzea. Hori horrela ez balitz (hau da, autonomia-erkidegoko legea HAOLO legearen xedapenen aurkakoa balitz ere), dibergentzia formal huts baten aurrean geundek, ez dibergentzia material baten aurrean; beraz, ezingo litzateke esan konstituzioaren aurkakoa denik.
85. EABJ 2/2002 irizpenean zehatz-mehatz aztertu genuenez, zaila da HAOLotik ateratzea edo ondorioztatzea zer xedapen dagoen lege organikoaren erreserbaren mende, lege horren lehen xedapen gehigarriak (2/2011 LOK aldatua orain) dioena dioela. Irizpen hartan, sistematizatu egin genuen hauteskunde-prozesu orori aplikatu beharrekotzat —eta, beraz, lege organikoaz jorratu beharrekotzat, edota Estatuaren eskumenen egikaritzat— jotako xedapenen zerrenda.
86. Aurreproiektuaren azterketan, beraz, konparaketa edo alderaketa egin behar da xedapen horien edukiarekin, aintzat hartuta, noski, Konstituzio Auzitegiaren doktrina, autonomia-erkidegoetako hauteskunde-arauak HAOLorekin konparatu dituenetan eman duena alegia, HAOLoren lehen xedapen gehigarriak sailkatu baitu bere xedapenen edukia.
87. Ekimenaren xedearekin zuzeneko lotura duenez, egoki da aipatzea lege batzuek aldatu dutela HAOLO.
88. Lehenik eta behin, urriaren 8ko 9/2007 Lege Organikoak aldatu egin zituen HAOLoren xedapen batzuk, aldi batez atzerrian dauden pertsonen botoa posta bidez emateko duten eskubideari buruzkoak, bai eta itsuen edo ikusteko desgaitasunak edo zailtasunak dituzten pertsonen sufragio-eskubideari (74. eta 78. artikulua) buruzkoak ere. Xedapen horiek HAOLoren eskeman sartzen dira, lehenengo xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan, eta, beraz, Eusko



Legebiltzarrerako hauteskundeetan ere aplikatu behar dira. Halaber, HAOLoren 24. artikuluko erregulazioari jarraituz, hauteskunde-sail, -mahai eta -lokalen behin betiko zerrenda, ale-kopuru handieneko bi egunkarietan argitaratu beharrean, Hauteskunde Erroldaren Bulegoak Interneten zabalduko du — ELHLen 38.3 artikuluan arautzen da arlo hori; aurreproiektuak artikulua horri eragiten dio—.

89. Dena den, gure azterketarako garrantzirik handiena duten HAOLoren aldaketak lege organiko hauen bidez gauzatu ziren: urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoa (aurrerantzean, 2/2001 LO) eta urtarrilaren 28ko 3/2011 Lege Organikoa (aurrerantzean 3,2001 LO).
90. 2/2011 LOK bere atarikoan dioenez, kasu batzuetan, arauaren alderdi zehatz batzuk —organo eta erakundeen izenak, zehapenen zenbatekoa, pezetak euro bihurtzea, eta abar— eguneratu ditu; beste batzuetan, hauteskunde-araubidean eragina duten aldaketa teknikoak sartu ditu; eta, azkenik, funtsezko beste aldaketa batzuk egin ditu hainbat arlotan: hauteskunde-errolda, atzerrian dauden hautesleek botoa emateko prozedura, hauteskunde-kanpainak, hauteskunde-publizitatea eta -informazioa komunikabideetan, botoa emateko eguna, eta hauteskunde-gastuak, besteak beste.
91. 3/2011 LOK, funtsean, hautetsien hautaezintasun- eta bateraezintasun-arrazoiei eragiten die. Horretaz gainera, oinarrizko gaien multzo bat sartzen du, sufragio pasiborako eskubidearen pribatizazioari buruzkoa eta hautagaiak legez kanpo uzteari eta horrek hauteskunde-prozesuaren eta diru-laguntzen alderdian dakartzan ondorioei lotutako gaiari buruzkoa.
92. Aldaketa horietan, bada, berebiziko eragina izan dute, alde batetik, ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoa, Alderdi Politikoei buruzkoak —zeinak, bere aldetik, aldaketak izan baititu xedapen batzuetan—, eta uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoa, Alderdi Politikoaren Finantzaketari buruzkoak; ahaztu gabe, jakina, Auzitegi Gorenaren, Konstituzio Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrina, eta Hauteskunde Batzorde Nagusiaren ebazpenak.
93. EA Eren arloan, aipatzekoa da zer-nolako eragina duen abenduaren 23ko 6/2010 Legeak, Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Instituzionalari buruzkoak, ELHLen arlo batzuetan; hala nola kanpaina instituzionaletan, eta, horien artean, hauteskunde- eta erreferendum-prozesuetan (11. artikulua).
94. Orobat dute eragina, neurri txikiagoan bada ere, ELHL garatzeko eman diren hauteskunde-arloko arau instrumentalek. Hona hemen arau horiek: (i) 220/2008 Dekretua, abenduaren 23koa, Euskal Legebiltzarreko hauteskundeetan erabiltzeko kutxa, kabina, boto-txartel, kartazal eta gainerako agirien eredu ofizialak eta ezaugarriak eta material hori eskura emateko prozedura zehaztekoa (ELHLen 88.1 artikulua garatzen du; aurreproiektuko proposamenak aldatu egiten




du artikulua hori); Agindua, 2012ko abuztuaren 30ekoa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, ELHLen jasotako zenbatekoak eguneratzeko dena; eta (iii) Agindua, 2012ko abenduaren 17koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioaren sailburuarena, Eusko Legebiltzarrerako 2012ko Hauteskundeetako gastuak mugatzeko ezarritako zenbatekoak zehazten dituena.

### III AURREPROIEKTUAREN EDUKIA

#### A) Gai orokorrak:

95. Proiektuaren edukia aztertzen hasi aurretik, aipatzekoa da —arestian esan dugunez— Batzordeari kontsultarako aurkeztutako amaierako testuaren azalpena, egitura eta artikuluen atala eta EABJ 224/2011 irizpenaren bidez aztertutako testuarena berberak direla. Azken testu hori aurreko arau-ekimenaren ondorio da, eta horren edukia, funtsean, gure irizpenean jasotako oharren arabera aldatu zen, eta, gero, Eusko Legebiltzarrera bidali. Han, legegintza-prozedura abian jarri zen, eta Legebiltzarreko taldeek zuzenketak aurkeztu zituzten. Horren ondoren, ekimena bertan behera gelditu zen; izan ere, ganbera desegin egin zen.
96. Oraingo ekimenaren araudiari dagokionez, egin beharreko prozedura-izapideak egin ostean eman digute, eta zenbait berritasun ditu, Eusko Legebiltzarrera bidalitako testuaren aldean. Berritasun horietako batzuk araudia sortzen hastean proposatu ziren, hainbat arrazoi zirela medio, eta beste batzuk, berriz, araudia egiteko prozesuan egindako alegazio batzuk aintzat hartu izanaren ondorio dira.
97. Espedienteko dokumentuetan jakinarazten denez, ekimenaren helburua da ELHL aldatzea, bai eta egin beharreko hobekuntzak eta egokitzapenak egitea ere. Hobekuntza eta egokitzapen horiek, funtsean, hauteskundeei buruzko estatuko legerian egindako aldaketen ondorio dira. Aldaketa horien eragile izan dira 2/2011 Lege Organikoa eta 3/2011 Lege Organikoa (HAOLO aldatzen dute), Konstituzio Auzitegiaren doktrina (hauteskunde-batzordeen administrazio-jardunaren legezkotasunaren kontrol judizialari eta boto-txartelen aldaezintasunari dagokionez), bai eta hauteskunde-administrazioaren aholkuak ere, hauteskunde-batzordeen jarraibideen eta erabakien bidez hezurmamituak (hautaezintasun-arrazoiaren inguruabarrak argitzeari, hauteskunde-garaiko kanpaina instituzionalen helburuari eta mugei, eta araubide zehatzaile bat arautzeari buruzkoak dira jarraibide eta erabaki horiek).
98. Hona hemen ELHL aldatzea justifikatzen duten beste hobekuntza tekniko batzuk: pezetatan adierazitako zenbateko guztiak eurotan adierazi dira — eta euro konstantetan eguneratu—; erakunde eta instituzio jakin batzuen izena aldatu egin da, eta, hortaz, dagokion izena jaso da; bidea ireki da teknologia berriak erabiltzeko (teknologia horiek bide ematen dute boto-txarteletarako formatu



elektronikoa erabiltzeko, eta Eusko Jaurlaritzako webgunetik deskargatuko dira); eta hauteskunde-agiriak baliabide elektronikoen bidez beteko dira.

99. Horretaz gainera, kendu egin dira bozketa elektronikoaren prozedurari buruzko aurreikuspenak, ELHL aldatzen duen ekainaren 19ko 15/1998 Legeak ezarriak. Espedientean behar bezala azaltzen da zergatik kendu diren aurreikuspen horiek. Zehazki, hauxe esaten da: indarrean hamabost urte egon ostean, ezin izan direla aplikatu, txartel eta gutun-azal bidezko boto tradizionalarekiko bateragarritasunaren lege-aurreikuspena dela eta. Hori gorabehera, aurreproiektuaren bigarren xedapen gehigarrian, Eusko Jaurlaritzari gaitasuna ematen zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak txostena egin ostean, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan beharrezkotzat jotzen diren proba pilotuak egiteko, autonomia-erkidegoko prozesuari hobekien egokitzen zaizkion teknologia berriak erabilita, teknologia horiek ezar daitezkeen ala ez aztertzeko xedez.
100. Amaitzeko, lege-aurreproiektuaren eduki batzuk Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondorio ere badira; hala nola EAEko hauteskunde-prozesuetan aurreikusten diren emakumeen aldeko ekintza positiboak, emakumeei hauteskunde-mahaietako kide ez izateko aitzakia gehiago ematean dautzanak.
101. Jarraian, jarduteko modua ebaluatuko dugu, lege-aurreproiektuaren helburu nagusiari dagokionez. Helburu hori da HAOLoren aldaketetara egokitzea ELHL (HAOLoren aldaketei dagokienez, espezifikoki 2/2011 LOren eta 3/2011 LOren bidez egin ziren aldaketa horiek).
102. Jabetu gara ekimena egin duen organoak ohi ez bezala txertatu dituela lege organiko horien oinarritzko edukiak. Berez, aurreproiektuaren zioen azalpenean, behar bezala azaltzen da zer aldaketa egin diren 2/2011 LOren ondorioz (hauteskundeetarako administrazioari, prozedurari eta diru-laguntzei lotutako alderdietan), eta 3/2011 LO ez da aipatzen proposatutako arauaren aurrekaria gisa.
103. Azken finean 3/2011 LOren ondorio den ELHLen aldaketa bakarra aurreproiektuaren zazpigarren artikuluan jaso da. Aldaketa horrek paragrafo bat, zazpigarrena, gehitu dio ELHLen 4. artikuluari.
104. Horren ildotik, espedientean esaten da — ustez, bertan behera gelditu zen ekimenaren testuan jasotako aurreikuspenetik aldenduz — ez dela beharrezkoa ELHLen berriaz arautzea 3/2011 LOri lotutako eduki jakin bat; izan ere, “ez da beharrezkoa lege-proiektuan ia hitzez hitz jasotzea 1/2003 eta 3/2011 lege organikoen oinarritzko xedapenak; izan ere, edozein kasutan ere, ezinbestean aplikatu behar dira hauteskunde autonomikoetan”.



105. Azalpen horrek —nahiz eta argi eta garbi erakutsi xedapen horiek betetzeko borondatea— ez du, bere horretan, eduki jakin batzuk sartzea edo baztertzea egokiro justifikatzeko inguruabarrik; izan ere, muturrera eramanez gero, funtsik gabe utziko luke arau autonomikoa 2/2011 LOren ondorio diren antolamenduaren gainerako oinarritzko alderdietara egokitzea xede duen aldaketa.
106. Ñabardura hori egin ostean, aipatzekoa da gainerakoan aurreproiektuak egokitu egiten dituela HAOLoren erreformen eraginpean dauden xedapenak; batzuetan, xedapen horien edukia erreproduzituz, eta, beste batzuetan, HAOLora igorritik edo bi teknikak aldi berean erabiliz. Oro har, onestekoa da nola egokitu diren xedapenak.
107. Horren harira, lege organikoen xedapenak kopiatzeari dagokionez, berriz aipatuko dugu nola heldu diogun gai horri; hain zuzen ere, EABJ 224/2011 irizpenean adierazi bezalaxe. Irizpen horren hasieran adierazi genuenez, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziari erreparatuta, Konstituzioaren xedapenak edo xedapen organikoak lege arruntetan errepikatzeak arriskuak ekar ditzake (eta balorazio negatiboa zor zaio, teknika juridikoaren ikuspuntutik), ez baitira teknika egokiak Konstituzioak ezarritako iturri-sistemaren aldetik. Doktrina konstituzionalak sarritan azaldu ditu horrela arautzearen ondorioak (denen erakusgarri, 135/2006 KAE, apirilaren 27koa, 341/9 KAE, 9. OJ, gogoratzen duena).
108. Nolanahi ere, doktrina horren arabera, xedapen organikoak lege arruntetan txertatzearen azterketa egiteko, estu lotu behar zaio dagokion kasuari, eta kontuan izan behar da jokamolde hori “Konstituzioaren kontrakoa izan daitekeela”, kopia egin duen arauaren konstituziokontrakotasuna ekar dezakeelako, kopiatutako xedapena indargabetu edo aldatzen bada.
109. EABJ 224/2011 irizpenean, EABJ 114/2004 irizpena aipatu genuen, eta, azken irizpen horretan, Batzorde honek gogora ekarri zuen, EABJ 114/2004 irizpenean esan genuenarekin bat (oinarritzko arauak lege autonomiko batean errepikatzeari dagokionez, —1/2003 KAE, denen erakusgarri—), arazoak ez duela, gaur egun, behin betiko soluzio errazik, eta planteatzen den kasu jakin bakoitzak emango duela bidea doktrina horrek lege autonomikoari dakarzkion mugak ziurtasun gero eta handiagoz ezartzeko, kasuan kasu.
110. EABJ 224/2011 eta 17/2006 irizpenetan jasotakoari jarraituz, Batzordearen ustez, artikulua jakin batzuek, organikotzat jotzen diren HAOLoren xedapenak erreproduzitzen dituztenek —kontuan hartu behar da HAOLok hainbat aldaketa izan dituela; berrienak 2/2011 eta 3/2011 lege organikoen bidez egin dira—, zenbait eduki dituzte, eta eduki horiek, legegaita kontuan hartuta, ezinbesteko dira onartu asmo den arau-testuari zentzua emateko: helburua da hauteskunde-arloko




erregulazio orokor, oso eta integral bat ezartzea oinarrizko eskubide bat erabil dadin (sufragioaren eskubidea), eta, horregatik, arau-aukera egokia da eduki jakin batzuk sartzea, baldin eta horiek gabe erregulazioa ulertezina izango bada eta, halaber, legegile autonomikoak, legea nola osatu erabakitzeko duen askatasunaren arabera, araua ematean dituen benetako helburuak lausotzen badira.

111. Alde horretatik, Konstituzio Auzitegiak, bere doktrina nolabait modulatu, eta hauxe adierazi du: “legegile autonomikoak (...) arauak errepikatu edo kopiatzeko (leges repetitae) debeku hori ez da hedatu behar, beste kasu batzuk hartzeko; alegia, ez da debekuaren barruan sartu behar errepikapen bat, prozesu-ordenamendu orokorraren xedapen jakin batzuk arautegi autonomikoan —dagokion eskumen esparruaren barruan erabilia— txertatzeko besterik ez dena, parlamentu autonomikoak onartutako arau-testuari zentzua edo ulergarritasuna emateko helburu bakarrarekin” (47/2004 KAE, martxoaren 29koa, 8. OJ).
112. Era berean, ezin da ahaztu herritarrak izango direla testuaren hartzaile (eta, askotan, aplikatzaile ere), sufragio-eskubidearen titular diren aldetik, eta, horren ondorioz, legearen artikuluetan sartuz gero eskubide hori zedarritzen duten xedapenak, orobat eskubidearen edukia eta eskubidea gauzatzea arautzeko printzipioak (eta mugak), arrazoizko eta justifikaturiko aukera izango litzateke hori, Batzordearen aburuz.
113. Aurreko gogoeta horiek kontuan hartuta, Batzordeak ontzat jotzen ditu —hargatik galarazi gabe irizpenaren hurrengo azpiatalean egingo diren ñabardurak; bereziki, aurreproiektuaren berrogeita hamahirugarren artikuluari, ELHLen 146 h) artikulua aldatzen duen horri, dagokionez— aurreproiektuaren zenbait xedapen; hain zuzen ere, HAOLoren lehen xedapen gehigarriaren arabera, autonomia-erkidegoetako legebiltzarretarako hauteskundeetan, autonomia-erkidegoek deitutakoetan, ere aplikatu behar direnak.
114. HAOLoren xedapenak kopiatzen dituzten araez gain, beste gai batzuk ere arautu ditu aurreproiektuak, autonomia-erkidegoak hauteskundeetan arloan duen eskumena egikarrituta. Ez dugu ikusi eskumena gehiegikeriaz erabili denik.

## **B) Artikuluen azterketa:**

### **4. artikulua. Sufragio pasiborako eskubidea: hautaezintasun-arrazoiak eta bateraezintasunen araubidea:**

115. EABJ 224/2011 irizpenean jakinarazi genuenez, hautaezintasun-arrazoiak eta bateraezintasunen araubidearen erregulazioak herritarren eskubide bati eragiten dio, hots, arazo publikoetan, zuzen-zuzenean nahiz ordezkari bidez, parte hartzeko eskubideari, ordezkariok askatasunez hautatuko baitira, sufragio



unibertsalaren bidez, aldizka egindako hauteskundeetan; hain zuzen ere, Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua (sufragio aktiborako eta pasiborako eskubidea) aldarrikatu baitu eta oinarritzat jo. Horrenbestez, sufragio-eskubideari mugarik jarriko bazaio, zorrotz jokatu beharko da, heineko muga izan behar baitu, behar bezala justifikatua, eta era murriztailean interpretatua.

116. Ildo horretatik ELHLen 4. artikulua mantendu egin du, zenbait ataletan mantendu ere, sufragio-eskubidearen muga, izendapen askeko karguentzat, zuzendaritza politikoko beste kargu batzuekin ("sailburuorde, idazkari nagusi, zuzendari...", eta Arartekoan, Herri Kontuen Euskal Epaitegian eta abarretan diharduten izendapen askeko karguekin) parekatu baititu, kontuan hartu gabe Administrazioan, gaur egun, badirela izendapen askearen bidez sartu diren pertsonak betetako lanpostuak edo plazak, zuzendaritza politikoaz kanpoko eginkizunak dituztenak: azken horiei dagokienez, ez dago argi hautaezintasun-arrazoiak eragiten dien ala ez.
117. Horri dagokionez, azpimarratzekoa da zioen azalpenean (IV. ataleko bigarren paragrafoan) esaten dena: "Lege honen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendariordea eta lurralde-ordezkaria hautagai dira; izan ere, indarrean dagoen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, funtzionarioen artean izendapen aske bidez izendatzen diren lanpostuak dira".
118. Lehenik eta behin, ez da zuzena zioen atalean esaten dena; hau da, legean ez da esaten zuzendariordea eta lurralde-ordezkaria hautagai direnik. Legeak sufragio pasiborako eskubidea arautzen du, eskubide horren titularrei buruzko goiburuko arau orokor baten bidez, eta, gero, hautaezintasun- eta bateraezintasun-arrazoiak zehazten. Arrazoi horien artean, egia da aurreproiektuan berriazko aipamen bat kendu dela, eginkizun horiek betetzen dituztenen hautaezintasun-arrazoiari buruzkoa. Dena den, ELHLen 4. artikuluko hirugarren 3. paragrafoaren a) idatztatian, modu zabal samarrean zehazten da lehenengo arrazoiak ("Sailburuorde, Idazkari Nagusi, Zuzendari, Zuzendariorde, Lurralde-Ordezkaria edo Administrazioari zuzendatzen diren lanpostuak dira"). Hori dela eta, pentsa liteke eginkizun horiek egiten dituztenak ere sartzen direla arrazoi horretan.
119. Hortaz, hautaezintasun-arrazoiaren faktore erabakigarri bilakatzen da kargua hautatzeko modua, hots, izendapen askea. Horregatik, salbuespen hori zehaztu behar da, salbuespen horretan sartzen diren kargu eta funtzio guzti-guztiak zerrendatuz (halaxe egiten da HAOLoren 6. artikuluan; hor adierazten denez, ez da zilegi arrazoiak aurreikusitakoetatik harago zabaltzea) edo irizpide baztertzailak zedarriz, gerta baitaiteke ez izatea funtzionarioentzako gordetako lanpostuak (Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera), nahiz eta izendapen askeko sistemaren bidez eman lanpostu horiek [beste kontu bat da, aski ezberdina, funtzionario horiek, gero, hautatuak izanez



gero, ELHLen —5.2.a) artikuluan—aurreikusitako hautaezintasun-arrazoiren bat betetzea], pareko kargu horien eginkizunaren inguruabarraz gain, adibidez.

120. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko zuzendariari eragiten dion hautaezintasun-arrazoari dagokionez —gaur egun, ELHLen 4.3.a) artikuluan ere jasotzen da hautaezintasun-arrazoi hori—, nabarmentzekoa da lege horren 5.2.a) artikulua berariaz adierazten duela hautaezintasun-arrazoi izango dela, nahiz eta 5.1 artikuluan hasieran esan hautaezintasun-arrazoi guztiak bateraezintasun-arrazoi izango direla. Hori errepikatzeko arrazoi jakinik ez badago — kargu horren hautaezintasun-arrazoa soilik aipatzen da bi aldiz —, gomendagarria izango litzateke errepikapen hori kentzea, ekimen honen bidez egingo den arau-aldaketan.


### **36 bis artikulua. Hizkuntza ofizialak erabiltzea:**

121. Aurreproiektuaren hamahirugarren artikulua ELHLi gehitu dion 36 bis artikuluari dagokionez, hau hartu behar dugu kontuan: azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilpena arautzen duenak, 6.1 artikuluan, herritar orori aitortzen dio eskubide bat, euskara zein gaztelania erabiltzeko autonomia-erkidegoaren lurralde-eremukiko herri-administrazioarekiko harremanetan, baita, zer hizkuntza ofizial aukeratzeko duen, arreta hizkuntza horretan jasotzeko ere; horretarako, neurri egokiak hartuko dira, eta beharrezko baliabideak bideratuko, eskubide hori arian-arian gauzatu dadin bermatzeko.
122. 36 bis artikulua ez dio ezer gehitu 10/1982 Legeak oro har ezartzen duenari, eta, edozein kasutan ere, nahasgarri izan daiteke; izan ere, herritarrek eta talde politikoek euskal hauteskunde-administrazioarekin idatziz dituzten harremanetara soilik mugatzen du eskubide hori.

### **43.2 artikulua. Mahaiko lehendakari izateko baldintzak:**

123. Aurreproiektuaren hamaseigarren artikulua aldatu egin du ELHLen 43.2 artikulua, hauteskunde-mahaietako lehendakariak eta kideak bete behar dituzten baldintzei buruzkoa.
124. Mahaiko lehendakariak izan beharreko tituluari dagokionez, proposatutako testuak HAOLoren 26.2 artikuluan idatzera —2/2011 LOren arabera— kopiatu du, hein batean. “Eskola-graduduna” tituluaren edo baliokidearen ordean, “Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua” eskatuko da (hori bat dator Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hamaikagarren xedapen gehigarriarekin). Edonola ere, testuak ez dio irizpideari jarraitu, eta ez du baliokidetu “bigarren mailako Lanbide Hezkuntzako titulu”. Gaur egungo hezkuntza-sisteman, ez daiteke titulu hori eskuratu.





125. Horretaz gainera, kontuan hartuta egin diren hezkuntza-erreforma ugarien ondorioz zenbat titulu dauden, artikulua amaieran hauxe jarri beharko luke: “edo titulu baliokideak” ;aurrerago aipatzen diren guztiei erreferentzia egiteko, eta ez azkenekoari soilik.

**68 bis, 79. eta 80.1 artikulua. Hauteskunde-kanpaina: xedapen orokorrak eta hauteskunde-propaganda:**

126. ELHLen 68 bis artikulua 3. paragrafoak (aurreproiektuaren hamazazpigarren artikulua bidez gehitu zaio artikulua hori ELHLi) berariazko arau bat ezarri du, debekuak ez betetzeagatik jartzekoak diren zehapenei buruzkoa. ELHLen 132. artikuluan hauteskunde-legearen arau-hausteetarako ezarritako zehapen-araubide orokorrak ez bezala, artikulua horrek nahierakotasun-tarte bat iradokitzen du — hautazkoa izango balitz bezala idatzi da: “zehatu ahalko dira”—. Nahierakotasun-tarte hori, ordea, ez dago justifikatuta, eta zalantzan jartzen du zehapen-araubidearen eraginkortasuna, eta, berez, segurtasun juridikoak nagusi izan beharko luke horrelako arau batean.


127. Hori bera esan dezakegu ELHLen 79. artikuluari dagokionez ere. Aurreproiektuaren hogeita zortzigarren artikulua bidez, ELHLen 79. artikulua aldatu da, eta, idazkera berriaren arabera, hautazkoa da artikulua horretan jasotzen den zehapena jartzea.

128. Aurreproiektuaren hogeita bederatzigarren artikulua 80. artikulua 1. paragrafoa aldatzea proposatu du. Oraingo idazkeraren arabera, artikulua horrek behartu egiten ditu alderdi politikoak, federazioak, koalizioak eta hauteskunde-taldeak propaganda grafikoa jarri zuten tokietatik kentzera hauteskundeak egin eta hurrengo hamabost egunen barruan.

129. Proposatutako aldaketaren arabera, betebeharrak hori baimenik gabeko tokietatik propaganda grafikoa kentzeari soilik dagokio; hau da, ELHLen 75. artikulua arabera hauteskunde-batzordeek baimentzen dituzten tokietatik, hala ELHLen 73.1.b) artikuluko jabego publikoko guneetatik, nola gune komertzial baimenduetatik, kanpo jartzen den propaganda grafikoa kentzeari.

130. Hitz batez, dagokion zehapena jartzeaz gain — ELHLen 79. artikulua — , tipifikatutako ekintzak berekin dakar dagokion propaganda kentzeko betebeharra, bai eta 80. artikulua horren 2. eta 3. paragrafoetan ezarritakoa aplikatzea ere (paragrafo horiek beren horretan utzi dira).

131. Ez da azalpenik eman aldaketa horri buruz. Aldaketa horrek, ordea, hutsune bat sortzen du, baimendutako tokietan (jabego publikoko guneetan eta gune komertzialetan) jarritako propaganda kentzeko araubideari dagokionez. Jabego




publikoko guneei dagokienez, uste izatekoa da udalek kenduko dutela propaganda eta horrek ez diela gasturik ekarriko —orain kontrakoa esaten den arren— inplikaturako botere politikoei.

#### **146.h) artikulua. Hauteskunde-gastuak:**

132. Berrogeita hamahirugarren artikulua aldatu egin du ELHLen 146. artikulua h) idatz-zatia: boto-asmoari buruzko hauteskunde-inkestak eta -zundaketak sartzeko dituzten hauteskundeetarako bulegoen eta zerbitzuen antolamendurako eta funtzionamendurako beharrezko diren hauteskunde-gastuetan.
133. HAOLoren 130. artikulua ez ditu hauteskunde-gastutzat hartzen inkesta eta zundaketa horiek — HAOLoren lehenengo xedapen gehigarriaren 2. paragrafoaren arabera, 130. artikulua orobat da aplikatzeko autonomia-erkidegoetako legegintza-batzordeetarako hauteskundeei, autonomia-erkidegoek antolatzen dituzten horietan—.
134. Talde politikoek hauteskunde-garaian egiten dituzten boto-asmoari buruzko hauteskunde-inkestak HAOLoren 130. artikuluan jasotzen diren hauteskunde-gastuen barruan sartzeko eskabideari dagokionez, Hauteskunde Batzorde Nagusiak erabaki bat hartu zuen 2012ko azaroaren 15ean, eta, erabaki horretan aditzera ematen zuen irizpidearen arabera, inkesta horiek ez dira sartzeko HAOLoren 130 b) artikuluko kontzeptuan, ez baitira propaganda, ez eta publizitatea ere, ez zuzenean, ez zeharka.
135. Organo proposamengilearen arabera, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren erabaki horrek ez du esan nahi inkestak ez daitezkeenik sar HAOLoren 130. artikulua h) idatz-zatian eta, hortaz, ELHLen 146. artikulua homonimoan.
136. Batzordearen aburuz, ordea, ez dago funtsik hauteskunde-inkestak eta -zundaketak egiteak dakartzan gastuak sartzeko hauteskundeetarako bulegoen eta zerbitzuen antolamendurako eta funtzionamendurako beharrezko diren gastuetan; izan ere, ez dago lotura material objektiborik.
137. Horregatik, inkesta eta zundaketa horiek dakartzaten gastuak hauteskunde-gastutzat hartuz gero —horrek dituen konnotazioak eta berekin ekarriko duen tratamendua kontuan hartuta—, oinarritzko gai bat gaituko da, eta EAEk ez du eskumenik halako aldaketarik egiteko.

#### **Xedapen indargabetzailea:**

138. Amaitzeko, araudiaren teknikarekin dituen inplikazioak gorabehera, xedapen indargabetzaile bakarraren edukia aztertuko dugu atal honetan, garrantzia baitu.



139. Aztertutako ekimena arau aldatzaile bat denez, ez du zentzurik xedapen indargabetzaile bat erabiltzea aldatutako arauaren edukiaren zati bat ondorerik gabe uzteko. Arau aldatzailearen xedapen-atalaren esparru-testuaren helburua da hori egitea.
140. Hain zuzen ere, arau aldatzaileen helburua da aurreko arau baten zati jakin batzuk beste era batera idaztea, beste xedapen batzuk gehitzea, xedapenetako batzuk ezabatzea eta beste arau batzuen indarraldia luzatzea edo etetea (horixe adierazten dute, halaber, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideek; hau da, Gobernu Kontseiluaren 1993ko martxoaren 23ko Erabakiaren bidez onartu eta Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuaren 1993ko apirilaren 6ko Aginduaren bidez argitaratu ziren jarraibideek —aurrerantzean, jarraibideak—).
141. Batzordearen aburuz, aplikagarria da, bai eta ondorerik gabe uzten diren edukiak lehengo arau aldatzaile baten bidez sartu badira ere aldatutako arauan. Aldaketen bidez, idazkera berria sartu da jatorrizko testuan, eta, beraz, arau aldatzailearen edukia oso-osorik sartuko da aldatutako arauan.
142. Horrenbestez, proposatutako testuaren xedapen indargabetzailearen edukia, aldatutako arauari buruzkoa, aldatutako arauko artikuluetan jaso behar da, artikulua beregain gisa jaso ere, eta artikulua horretan esan behar da arauaren zer zati ezabatzen diren; alegia, ELHLen X. kapitulua, idazpuru hau duena: “Bozketa elektronikoki dagokion jardunbidea”. Sobera daude xedapen indargabetzaileak egiten dituen berariazko aipamen batzuk, ezabatutako kapituluko artikulua jakin batzuei buruzkoak.
143. Xedapen indargabetzaileak, kasu honetan eta hizpide dugun gaiari dagokionez, ELHL aldatzeko ekainaren 19ko 15/1998 Legearen zati bati soilik egin behar dio erreferentzia. Zati horrek balio arauemaile beregaina du, ez du ELHL aldatzen, eta, horrenbestez, ez dago ELHLen sartuta. Zati hori dira azken xedapenetatik lehenengoa eta definizioen eranskina.
144. Xedapen indargabetzaileari buruz esandakoa orobat izan behar da kontuan aurreproiektuaren zioen azalpenean xedapen horri buruz egiten den aipamenean.

#### **IV ARAUGINTZA-TEKNIKA**

145. Bidali diguten testu zehatzari dagokionez, azkenik, Batzordeak egoki iritzi dio gogoeta batzuk egiteari, legegintza-teknikaren ikuspuntutik, eta laguntzeko asmoz betiere, teknikaren aldetik arau-emaiza onduagoa, eta, beraz, segurtasun juridikoaren printzipioari (EKen 9.3 artikulua) egokituagoa, ateratzearren.



146. Azterketa honetan, kontuan hartu beharrekoak dira arestian aipatutako jarraibideak.
147. Aldez aurretik ohartarazi behar dugu aurkeztu diguten proposamenari jarraitu diogula irizpen hau idazteko. Proposamen horretan, oro har, “apartado” esaten zaio jarraibideen arabera “párrafo” behar duenari. Zorrotz ikusita, hauxe aurreikusi dute jarraibideek, artikuluen edukiari dagokionez: artikulua paragrafotan (eta ez idatz-zatitan) banatuko direla, eta paragrafoei zenbaki arabiarak jarriko zaizkiela, eta, behar izanez gero, idatz-zatitan banatu daitezkeela paragrafo horiek, eta letra xeheak, alfabetikoki ordenatuak, jarriko zaizkiela idatz-zatiei. Halaber, bereziki aipatzekoa da euskarazko bertsioan hizkuntza-irizpide batzuk aldatu direla, zaharkituak direlako edo praktikarekin alde batera utzi direlako (aurrerago aipatuko ditugu).

**A) Aurreproiektuaren izaerari eta egiturari eta artikuluen antolaketa sistematikoari buruzko gogoetak:**

148. Aztergai dugun aurreproiektua arau aldatzaile bat da, eta arestian aipatutako jarraibideetatik zazpigarrena aplikatu behar zaio.
149. Arau aldatzaile hutsa da, eta xedapen bakar bati eragiten dio. Dena den, teknika gisa, aldatu den artikulua edo paragrafo bakoitzeko artikulua bat idaztea hautatu da, eta, artikulua bakoitzean errepikatu da zer legeri egiten zaion erreferentzia (“5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa”). Nahiz eta jarraibideetan horri buruz ezer ez adierazi, 2005eko uztailaren 28ko Ebazpenaren bidez onartutako Estatuko jarraibideek ezartzen dutena erreferentzia analogotzat hartuta, jakinarazten dugu aukera errazagoa dela (aldatutako araua artikulua bakoitzean errepikatu beharrean) artikulua bakar batean jasotzea. Artikulu horrek idazpuru hau izango du: (“**Artikulu bakarra.-** 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa, aldatzea”); eta paragrafotan banatuko da (paragrafo bat aldaketa bakoitzeko). Paragrafo horietan, arauaren erreferentzia eta nola aldatuko den soilik adieraziko da, esparru-testu gisa, arauaren idazpurua zein den zehaztu gabe. Paragrafoak letraz idatzitako zenbaki kardinalekin zenbakituko dira (bat, bi, hiru...).
150. Lehen aipatutako zazpigarren jarraibideak hauxe dio: “Artikulu aldatzailearen idazpuruan, aldatzekoa den artikulua zenbakia eta idazpurua aipatuko dira, halakorik izanez gero (...)”. Aurreproiektuaren testuan, idazpurua jartzea erabaki dute ELHLi gehitzen zaizkion artikuluei, bai eta ELHLen artikulua jakin batzuei ere; zehazki, edukia aldatu zaien artikulua idazpururik gabekoei (esaterako, 66. artikulua, aurreproiektuaren hogeita bigarren artikuluan emandako idazkeraren arabera; 71. artikulua, —hogeita bosgarrenaren arabera—; 79. artikulua — hogeita zortzigarrenaren arabera — ; 103. artikulua — hogeita hamazazpigarrenaren



arabera—; 115. artikulua —berrogeita hirugarrenaren arabera—; 132. artikulua —berrogeita seigarrenaren arabera—; 134. artikulua —berrogeita hamargarrenaren arabera—; edo 151. artikulua —berrogeita hamabosgarrenaren arabera—). Ez zaio irizpide horri jarraitu laugarren xedapen gehigarriari idazkera berria ematean — ez zaio idazpururik jarri — , aurreproiektuaren berrogeita hamaseigarren artikulua arabera.

151. Zazpigarren jarraibide horren gomendioarekin koherentziaz jokatzeko aldera, kontuan hartuta ELHLeko artikuluek ez dutela idazpururik, amaierako testu bateratuak uniformeak izan behar du; hortaz, ez da egokia xedapen-ataleko ezein artikuluri idazpurua jartzea, baldin eta artikulua lege horri egiten badiu erreferentzia. Horrek, ordea, ez die eragiten aurreproiektuaren amaierako xedapenei.
152. Horretaz gainera, arau aldatzaileei buruz esan dugunarekin bat, aztertu behar da, eragindako artikulua hedaduraren arabera, ea aldaketak baduen nahikoa funts artikulua bakar batean jasotzeko arau aldatzailean, artikulua osoari idazkera berria eman. Gure ustez, horixe egin daiteke ELHLen 4. artikulua idazteko (aurreproiektuaren lehenengo artikulutik zazpigarreneko artikuluek aldatzen dute artikulua hori). Artikulu horren 1. eta 2. paragrafoak soilik ez dira aldatzen; egitura aldatu egiten da, paragrafo bat gehitzen baita. Hortaz, aldatzen den erregulazioa gehiago da bere horretan gelditzen dena baino. Artikulu bakar batean jasota, araua sinplifikatuko da.
153. 4. artikulua horretan kasuak zerrendatze aldera marratxoak erabiltzeko dagokionez, ohartarazten dugu jarraibideetan ez dela halakorik jasotzen. Jarraibideen arabera, “Salbuespen kasuetan soilik egingo dira azpibanaketak, ez baitira gomendagarriak (eginez gero, arabiar zenbakiez adieraziko dira)”. Horrenbestez, marratxo horiek kendu egin behar dira, eta kasuak zenbakien bidez adierazi (1., 2. eta abar).
154. Hamaikagarren artikulua esparru-testuan esaten da ELHLen 30 artikuluko 1. paragrafoaren d) idatz-zatia aldatuko dela. Gure ustez, are argiago geldituko da artikulua horren d) idatz-zatia aldatuko dela esan eta jarraian idatz-zatia horren edukia osorik jasotzen bada; alegia, aldaketak dituen edukia eta aldaketarik ez duena.
155. Aurreproiektuaren hogeita seigarren artikulua bidez, 72. artikulua 3. paragrafoa ezabatu da —hauteskunde-kanpainan zehar telebista pribatuetan hauteskunde-publizitateko saiok egiteko debekuari buruzkoa da paragrafo hori—, eta, hogeita hamaikagarren artikulua bidez, paragrafo horren edukia sartu da 81.1 artikuluan—baina, horren aurretik, hogeita hamargarren artikulua bidez, ELHLen V. tituluaren II. kapituluaren laugarren atalaren idazpurua aldatu da, eta hauxe izango da: “Hauteskunde-kanpainan komunikabideak erabiltzea”—. Jabetzen gara



zein den horren helburua; alegia, modu bateratuan arautzea komunikabide publiko eta pribatuen erabilera kanpainen zehar.

156. Hori lortzeko eta aipatutako atalarekin koherentziaz jokatzeko aldera, ELHLen 72. artikuluko 1. eta 2. paragrafoak ere hor sartu beharko liriateke, hauteskunde-kanpainen zehar komunikabideak erabiltzeari buruzkoak baitira. Horrek 72. artikulua ezabatzea ekarriko luke, dagokion artikulua aldatzailearen bidez, bai eta 81. artikulua ere, aurreproiektuan artikulua horren idazkera aldatuz, eskema honi jarraituz: 81. artikuluko 1. eta 2. paragrafoei 72. artikuluko zenbaki bereko paragrafoen idazkera bera emango litzaieke, 3. paragrafoak aurreproiektuan proposatutako erregulazioari eutsiko lioke, eta 81. artikulua oraingo 2. eta 3. paragrafoak paragrafo berrien, hots, 4. eta 5. paragrafoen, edukia izango liriateke.
157. Ohartarazi nahi dugu, halaber, zer arrisku dakarren ELHLen V. tituluaren XI. kapituluaren numerazioa aldatzeak (horixe proposatzen du aurreproiektuaren berrogeita zazpigarren artikulua). Izan ere, proposatutakoari jarraituz oraingo X. kapituluaren ezabatzen bada, XI. kapituluak X. kapituluaren tokia hartuko du. Aldaketa horrek bertan behera utz ditzake beste artikulua batzuetan kapitulu horietara jotzeko egindako balizko bidaltze-oharrak.
158. Hori bera esan dezakegu 132 artikulua aldatzeko buruz (132 bis zenbakia eman zaio, artikuluen ordena korrelatiboari jarraitzeko, orain X. kapituluaren dauden artikulua ezabatu ostean), bai eta 132 ter artikulua gehitzeari buruz ere —aurreproiektuko berrogeita zortzigarren artikulua eta hurrengoa—.
159. Edonola ere, araugintza-teknika horri jarraituz gero, gure ustez, argigarriagoa izango litzateke artikulua bakar batean biltzea posta bidezko botoari eragiten dioten aldaketak, eta aipatutako kapituluaren aldatzea jarraian adierazten den zenbakiarekin eta idazpuruarekin eta 132 bis eta 132 ter gisa proposatutako artikuluen testuarekin.

**B) Araugintza-teknikari eta gramatika hobetzeari lotutako gaiak, aurreproiektuaren edukiari dagokionez:**

160. Zioen azalpenaren II. atalean, azken-aurreko paragrafoaren azken esaldiak aldaketa baten berri ematen du. Aldaketa horren oinarria da Hauteskunde Batzorde Nagusiaren 1/2012 Instrukzioa, martxoaren 15ekoa (halaxe identifikatu behar da, eta ez, esaldi horretan agertzen den erreferentzia generiko honen bidez: “horri buruzko azken instrukzioa”). Hortaz, egokiagoa da iruzkin hori III. atalean




jasotzea (hauteskunde-administrazioak proposatutako gogoetek ukitutako gaiei buruzkoa da atal hori).

161. Azaldutakoarekin bat, zioen azalpenen IV. atalaren idazkera aldatu beharra dago, zuzendariordeei eta lurralde-ordezkariei dagokienez, egindako iruzkinetara egokitzeko.
162. Ez da arrazoizkoa zioen azalpenen V. ataleko lehenengo paragrafoko baieztapena. Izan ere, kontsultarako bidali diguten testuan, ELHLi ez zaizkio gehitu paragrafo horretan aipatzen diren xedapen gehigarriak (xedapen horiek aurreproiektuaren xedapenak dira) ELHLeakoak aldatu gabe (berrogeita hamaseigarren artikulua soilik aldatu du ELHLen xedapen gehigarri bat, laugarrena).
163. “Bozketa elektronikoari dagokion jardunbidea” idazpurua duen V. tituluaren X. kapitulua ezabatzea xede duen aldaketari buruz esan dugunarekin bat, ezabatu egin behar da zioen azalpenaren V. ataleko bigarren paragrafoaren amaieran xedapen indargabetzaileari buruz egiten den iruzkina. Dena den, aldaketa kontuan hartzeko modukoa denez, merezi du zioen azalpenen barruan dagokion atalean aipatzea. Nahi izanez gero, esan daiteke ELHLi aldaketak egiten dizkion ekainaren 19ko 15/1998 Legearen bidez sartu zela kapitulu hori ELHLean.
164. Zioen azalpena aztertu ostean, artikulua aztertu ditugu. Lehenik eta behin, ELHLen 4. artikulua 3. paragrafoaren a) idatz-zatiari dagokionez, aurreproiektuaren lehenengo artikulua lehenengo kasuan idatz-zati horretarako proposatzen den idazkera Administrazioaren egiturarekin bat etor dadin (kontuan hartuta Administrazioan maila bereko baina arlo ezberdinetako erakunde ugari daudela), hobe da artikulua zehaztua jarri beharrean artikulua zehaztugabea erabiltzea; alegia, "sailburuordetza, idazkaritza nagusia, zuzendaritza (...)" "bat" esatea; edo, beste kasu batean, plurala erabiltzea: "sailburuordetzetako, idazkaritza nagusietako, zuzendaritzetako titularrak (...)".
165. Behin eta berriz esan dugunez, osorik egin behar da arauen aipamena. Esaterako, aurreproiektuaren zazpigarren artikulua ELHLen 4.7 b) artikuluari eman dion idazkera berrian ageri den HAOLoren aipamena ere egin beharko da haren izen ofizialarekin: 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzkoa.
166. ELHLen 50. artikulua 5. paragrafoaren testuan —paragrafo horrek hogeita batgarren artikulua gehitu du, ordezkoen zerrendan ere emakumeen kuotari eusteari buruzkoa—, hobe da “*continuum*” latinismoa ez erabiltzea eta argi eta garbi adieraztea mezua.



167. Hogeita bosgarren artikulua ELHLen 71. artikulua aldatzen du. Artikulu horretan sartu da Hauteskunde Batzorde Nagusiak martxoaren 24ko 3/2011 Instrukzioaren bidez HAOLoren 53. artikuluan arautako debekuaren gainean egindako interpretazioa, hauteskunde-kanpainaurreko hauteskunde-propagandari lotutako ekintzei buruzkoa.
168. Komeni da zenbait iruzkin egitea artikulu horren idazkerari dagokionez. Instrukzio horretan —Batzorde honek instrukzio hori aztertzeke eskatu zion ekimenaren erakunde sustatzaileari EABJ 224/2011 irizpenean— adierazten diren irizpideak arauan sartzeko haztapenak badu, zalantzarik gabe, muga bat; izan ere, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren iritzia aldatu egin daiteke. Hori dela eta, zer helburu lortu nahi dugun, horren arabera aukeratu behar dira instrukzio horren oinarritzko alderdiak. Kasu honetan, helburua da araua ulertzen laguntzea, balizko kasu guztiak jaso gabe, kasu horiek aldatu egiten baitira.
169. Horri dagokionez, 2. eta 3. paragrafoetarako proposatutako testuaren emaitzak xehetasun gehiegi jasotzen ditu, eta ez dago behar bezala sistematizatuta. Publizitate-ekintzen zerrenda luzea da, eta, horren erruz, bigarren mailan gelditu da oinarritzko alderdi bat; alegia, ekintza jakin batzuk onartzeko, erabakigarria dela botoa ez eskatzea.
170. Horregatik, beraz, 71. artikuluen 2. eta 3. paragrafoak sinplifikatu eta sistematizatu behar dira, edukiak multzokaturik, bertan jasotako mezuak modu orokorragoan adierazteko.
171. Bestalde, 71. artikuluko 1. paragrafoko debekuak zuzenagoa izan behar du. Horretarako, lagungarri izango litzateke aditza orainaldian jartzea —“Debekatuta daude”, 3. paragrafoan egiten den bezalaxe—. Eta 2. paragrafoaren lehenengo zatian, “aurreko zenbakian” jarri beharrean, “aurreko paragrafoan” jarri behar da.
172. Artikulu horretaz ari garela, ikusi dugunez, hauteskundeetan parte hartzen duten talde politikoak aipatzean, batzuetan, arauan elkarren ondoan azaltzen dira “alderdi politikoak, federazioak, koalizioak eta hauteskunde-taldeak” (hautagai aurkez daitezkeen guztiak, ELHLen 49. artikuluen arabera). Beste batzuetan, berriz, termino horietako bat ezabatzen da (batez ere, hauteskunde-taldeak —71. artikuluko horren 2. eta 4. paragrafoetan eta 50.2.b) artikuluan, esate baterako—. Hori nahasgarria izan daiteke. Horregatik, gai horri dagokionez, erreferentzia uniformeak eta osoak egitea gomendatzen dugu.
173. ELHLen 109. artikuluan —aurreproiektuaren berrogeigarren artikuluen bidez aldatu da artikulu hori—, zerrendako azken itemaren aurretik “y” juntagailua jarri behar da gaztelaniazko bertsiotan.






174. Berrogeita bigarren artikulua 112.3 artikuluari ematen dion idazkera berrian, gaztelaniazko bertsioan, komuntadura zuzendu behar da, eta singularrean jarri: “la Mesa”.
175. 151. artikulua 3. paragrafoan —berrogeita hamabosgarren artikulua bidez eman zaio idazkera berria—, gaztelaniazko bertsioan, “los apartados 1 y 2” aurrean agertzen den “el” artikulua ezabatu behar da. Halaber, paragrafo horiek justu aurretik daudenez, “artikulu honen 1. eta 2. paragrafoetan” jarri beharrean, modu sinplifikatu honetan jartzea gomendatzen dugu: “aurreko bi paragrafoetan”.
176. Azken xedapenetatik lehenengoan, ezabatu egin behar da 51/2003 Legearen aurrean agertzen den “estatal” kalifikatzailea.
177. Proiektatutako testuan, oro har, hizkuntza ez-sexista erabili da. Hala ere, hitz edo esamolde batzuetan, genero maskulinoa soilik erabili da; esaterako, aurreproiektuaren berrogeigarren artikulua ELHLen 109. artikulurako proposatu duen testuan eta berrogeita bosgarren artikulua 129.9 artikulurako proposatutako testuan. Gure iradokizuna da, horrenbestez, testua orraztu dezatela, hizkeran uniformetasuna lortze aldera genero-ikuspegitik.
178. Amaitzeko, idazteko irizpide bateratuak erabiltzea gomendatzen dugu: (i) letra xehez edo larriz idaztea artikulua batzuen atzean jartzen den latinezko adjektibo zenbatzailea (bis, ter, etab.) —adibidez, hamahirugarren artikuluan, esparrutestuan “36 bis”, jartzen du, eta, jarraian, erregulazio-testuan, “36 Bis” —; (ii) “artikulua” hitza osorik idaztea edo ez, aurreproiektuko artikulua bakoitzaren esparrutestuan —hogeigarren artikuluan laburtu egiten da: “art. 50”—.


### **C) Euskarazko testua eguneratzeari buruzko gogoetak:**

179. Legegintza-teknikari eta gramatika eta hizkuntza hobetzeari buruzko atalean aipatu dugunez, bereziki aipatzekoa da aurreproiektu honetan euskarazko bertsioa.
180. EABJ 54/2014 irizpenean jada aipatu genuen euskara teknikoaren eta juridikoaren arloan aurrerabide handia egin dela azken urteetan. Orain aldatu asmo den testua duela 20 urte baino gehiagokoa da. Lehen esan dugunez, testu hori gerora onartutako legeen bidez aldatu da. Dena den, aldaketa horietako bakar batek ere ez du euskarazko bertsioa eguneratu. Kasu hartan bezala, honetan ere argi eta garbi dago, aldatutako testua eta testu hori txertatu behar den legez xedapena erkatuz gero, premiazkoa dela aldaketa handiak egitea, emaitzan ez dadin egon segurtasun juridikoari larriki eragin diezaiokeen inkoherentziarik.
181. Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak bere txostenean adierazi zuen “boto-emanketa” ordean “bozketa” jarri behar dela (adierazpide hori ez da mugatzen



txostenean aztertu ditugun artikuluetara, hots, aldatutako artikuluetara; aitzitik, testu osoan erabiltzen da, hala nola artikulua hauetan: 40, 123, 44, 45, 48, 89, 92 eta 93). Adibide horretaz gainera, nabarmentzekoa da nola izendatu diren artikulua (jatorrizko bertsioan “atal”, eta erreforma honen bidez sartutako artikuluetan “artikulu”), kapituluak (jatorrizko bertsioan “atalburu”, eta erreforma honen bidez sartutako kapituluetan “kapitulu”) eta atalak (jatorrizko bertsioan “sail”, eta erreforma honen bidez sartutako kapituluetan “atal”). Horren ondorioz, aldaketaren ondorio den testu bateginean, artikuluek eta atalek izen bera izango dute, noiz idatzi diren, eta hori zentzugabea da.

182. Hori bera gertatzen da beste kasu batzuetan izendapen eta hitz espezializatuekin. Erreforma eragiten dien artikuluetan aldatu egin dira; gainerakoetan, ordea, jatorrizko testuan bezala jarraituko dute. Esate baterako: 1990eko testuan “aukerango izendapenezko” jartzen du, eta aurreproiektuan (4. artikuluan) “izendapen askeko”; ELHLen 21., 23. eta 31. artikuluetan “Kondaira-Lurralde” jartzen du, eta aurreproiektuaren 4.3.e), 29.e) eta 30.1.d) artikuluetan “Lurralde Historiko”; halaber, “erakunde burujabe” beharrean, “erakunde autonomo” jartzen du; “norbanako-alorreko legepeko erakunde” beharrean, “zuzenbide pribatuko erakunde publiko”.
183. Are gehiago, jatorrizko testuko arazoak eta koherentziari eutsi eta segurtasun juridikoa bermatze aldera testuan egin beharko liratekeen aldaketak —kontuan hartuta euskaraz argitaratzen den testua eta gaztelaniaz argitaratzen dena ofizialtzat eta benetakotzat jotzen direla bi hizkuntzetan eta, hortaz, funtsezkoa dela bi hizkuntza-bertsioak zehatzak eta juridikoki baliokideak izatea— ez dira mugatzen aipatutako adibideetara eta antzeko adibideetara; aitzitik, premiazkoa da lexiko arrunta eguneratzea, eta, beste kasu batzuetan egin denari jarraituz, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren irizpideak kontuan hartuz eta, halaber, terminologia espezializatua, juridikoa eta gaiari lotutakoa eguneratuz egin daiteke hori.
184. Egin beharreko aldaketak asko direnez, gure ustez, hausnartu beharra dago ea komenigarria den erreformaren proposamena ukitutako gainerako artikuluetara hedatzea euskarazko bertsioan —bi hizkuntza-bertsioetako bat aldatzea soilik ekarriko luke horrek; horixe egin izan da, esate baterako, bi bertsioetako bati soilik eragiten dion akats bat hauteman izan denetan— edo artikulua bat sartzea, behar adinako zabaltasuna duena (Jaurlaritzaren Legearen 52. artikulua) eta Eusko Jaurlaritzari baimena emango diona testu bakar batean jasotzeko legearen aldaketa guztiak, bai eta euskarazko bertsioa arautzeko eta bateratzeko ere, dagokion aholkularitza espezializatuaren bidez —IZOk eman lezake aholkularitza hori—. Hartara, kalitatezko testu moderno bat izango genuke, bere horretan eta modu normalizatuan erabiltzeko modukoa.



## **ONDORIOA**

Batzordeak emandako irizpenaren arabera, aipatutako lege-aurreproiektua, behin irizpen honen mamian egindako oharrak aintzakotzat hartutakoan, Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztu ahal izango zaio, onespena eman dezan.

Eta horrela egiaztatzen dugu Gasteizen, 2014ko apirilaren 16an, haren berri izan eta kontuan har dadin, eta gogorarazten dugu azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duela azkenean hartuko den xedapena edo ebazpena batzorde honi jakinarazi behar zaiola, irailaren 12ko 167/2006 Dekretuak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duenak, 34. artikuluan xedatutako moduan eta epean.

O. E.:

Jesús María Alonso Quilchano,  
**Idazkaria**

Sabino Torre Díez,  
**Lehendakaria**